Mutil ala nexka, haur xumea, adinak, emeki-emeki, gizonduko edo emaztetuko du, gogoan hedatzen zaiola, ahalak indartzen. Bere tokitik, beharrak, gertakariak urrun dezakete, eskualde arrotzetan jakitate bila, lanketa, bainan ez luke, ez du agian, nehon eta sekulan ukatuko, are gutiago ahanzikoa lehen-lehenik aditu eta ikasi duen mintzaira.

Mundu zabal huntan bazter bezainbat mintzaira bada, jende bakotzak berea garbiena, ederrera daukala eta auzoarena erdara zerbait. Bizkitartean, izan dadin nun-nahikoa, edo nola-nahikoa, zor zaio mintzairari errespetu, begirune eta amodio. Guk ere, euskaldunek, badugu mintzaira bat, zahar-zaharrenetarik bat, betitik gurea izan dena, gurea dagona, mendeak iraganagatik, gurea osoki nahi duguna. Ez dugu aipatu beharrik euskara egundainotik zombat ikertua den jakintsun handienez, omendagarrienez. Hala ere, zorigaitzez, deus bat zaiote asko euskalduni egiatzki miresgarria den gure mintzaira zaharra.

Zer nahi duzue ! Haizu zaiku, segur, gogo gosez edo beharrez erdara bat, batzuetan zenbait erdararen ikastea, erabiltzea, bainan ez dugu ahulezia, lazakeriaz, ahalkez, euskara gutiago jakin behar zeren euskarak handizki laguntzen ahal baitu bertze edozoin mintzairaren ikasten, zeren ere euskara baita gure gogoan, gure bihotzen hazkurri azkarrena, mamitsuena, gure arteko mintzaira bakarra izan behar dena.

San Frantses Jatsu eta Xabierekoak bazakizkan mintzaira asko, bainan, egun oroz Jainkoarentzat zauzkan bihotz ala xede altzatze kartsuenak euskaraz egiten ziozkan. Zer froga hunkigarria, sarkorra, saindu handiarena, ez dela ahanzten ahal, ez dela ahanzten haur-haurretik ikasi arbasoen mintzaira.

Izan dadiela bada gure zoriona beti euskaraz mintzatzea, gure etxeetan, gure herrietan, zaharrek, gaztek, gazteek zaharri, burhasoek haurri, haurrek burhasoeri, nagusi-etxeoandrek mutil-sehieri, auzoek auzoeri.

Idazle omentsu batek dio ez dugula egia hau ahantzi behar : mintzaira, geriza espantagarri, azkar eta boteretsu bat dela. Badakigu oraiko ibiltzeko errextasunekin, jendea aise eta ardura barreiatzen dela, eskuin eta ezker, arrotzekin kurutzatzen dela, elgarrekin solastatuz, gaizki ala ongi, bainan ahal bezain ontsa bakotzak bere elheak adiarazi nahizik !

Badakigu ere gero eta gehiago, saltzen eta erosten diren gauza, tresna berrien izenak ez dituela orai arte euskarak ezagutu eta erabili. Hala bada ere, iduritzen zaiku gure mintzaira zaharrak badukeela aski hitz behar diren edo ager litezkeen izen berrientzat.

Bai gogoaren alferkeria batek hautarazten du, askotan, ainitzi nolabaiteko izen batzuk, makurrak maiz, ez direnak ez euskara, ez erdara, bainan gehienek hartzen dituztenak eta adituaren bortxaz mintzairan sartzen eta kokatzen direnak. Hitz tresna horietarik zombait heldu zaizku gogorat :

- *Lave-ménian* sartua da..... (> *lave-main*)
- Sukaldean *brazieria* guti du... ..(> *brasserie ? > batterie ?*)
- *Antite* karta galdegin diote jandarmek.....(> *identité*)
- Eta erran diote gero : *berticuler !*... ..(> *circulez*)
- Bai, *eskumaka* gaitza du... ..(> *estomac*)
- *Kulibrak* ez dio hartzen... ..(> *roue libre*)

Eta zombat holako ! Ez dezazkegu denak hemen eman. Nola erran ditazkeen horiek guziak ? Hunelaxe :

- Zerbitzuetan sartua da...
- Sukaldean, zartain, gatelu, untzi, eltze guti du...
- Karta ezagutgarria galdegin diote jandarmek...
- Eta gero erran diote zoaz aintzina !
- Bai, urdail edo barne gaitza du...
- Adorra libroak ez dio hartzen...

Ai, zer buruhauste izanen duten ondoko egunetan, jakintsunek, jakin nahizik noizko eta nungo mintzairatik berexiak izan zitezkeen, erreialki hizkuntza erromes hori ! Euskaldunak badu, aitortu behar dugu usaia bat, halako lazakeria bat : makurtzen eta hitz-erdika ditu errexki, aditzen edo erraten elhe ainitz. Bizkitartean, ohartuak gare beren neurrietan ongi iskribatzen dituela gaizki adiarazten dituen hitz hek berak.

Zahar batek nahi izan gaitu (dauku) sinetsarazi piparia delakotz dela euskalduna hitz erdiz mintzo. Aparantziaz pipariak ez dute hortzik idekitzen pipa ahoan mintzo direnean. Beraz kearekin iresten dituzte hitz zatiak, maiz hoberenak eta aditzaileek hartzen dute ahal dutena...

Horiek guziak hola edo dena den, guri da, eta guzieren, onestea euskaldun eginbide hertsienaren manupean beti garbiki erabiltzea Aitor-en (1) mintzaira, izpiritu argituenean jeltosten daukuten euskara betierekoa. Uste dugu, zinez, nahiko errextasun guziak gure meneko dauzkatela gero eta gehiago agertzen diren egunkari, astekari, hiztegi, idazlanek mintzairaren jakintsuki harrarazteko, iskribarazteko.


Diote euskaldunari ez zaiola laket irakurtzea, gutiago oraino iskribatzea. Gezurtaraz dezagun fama hori. Entseia gaiten lotsarik gabe eta lot lanari.

Hurrek ikasazue, gazteek lant zazue, adinekoek, zaharrek irakatsazue eta denak atseginki, goraki, amultsuki mintza gaiten euskaraz.

Dominique DUFAU

---

(1) Ikus 76. orrialdean OHARRA (1) eta (1bis).



Oharra : Dominique DUFAUK berak egin marrazkia. Coll. Otheguy-Lévy.



GERNIKA --- Avril 1951

## Ezkurra

Egun batez, Jainkoak, euskal aldapa moko batetarat bota zuen ezkur bat eta sortarazi Haritza. Laster, zuhaitza goratu, zabaldu zen pizkor eta perde, « *hostaila iguzkiz gose, haizeen soinu, itzala enborpean logaitz* ».

Hostope ohargarri ederrak hautarazi zioten Zaharreri Biltzar tokitzat horren itzalgunea gerizatatzat. Eta han, maiz elgarretaritzen ziren Aitor-ak ohiduren moldatzeko, zuhurki baldernaren beharrez, ongidurez edo gauzen hobetzeaz solastatzeko, sinestea begiratzuz, begiraraziz ohidurak.

Harizetik, bil lekutik hurbil bizi nahizik, biltzarkideek aldapa gora, aldapa inguruan, beren egoitzak egin zituzten ; [e]txola ttiki batzuk lehenik, [e]txolak gero, pittaka-pittaka ola-etxeak, azkenik harri-etxeak, eta herri bat hedatu zen : « Gernika » izen espantagarrikoa.

Euskal Herria azkarki, sanoki, aberaski gorpuzten zutela, Zazpi Probentzia —bat bertzea bezain ederrak— aldapako haritz berari beha, mugatu ziren, bainan bat eginez.

Erregeek beren buruzagitasuna ezagutarazteko leku hartarat jotzen zutenean, gomitatu batzuk bezala ziren hartuak : joanarazten zituzten Haritzeraio.

Biltzar toki bakar hartan Zaharren buruzagiari beha, Ebanjelioa eskupean, jende oatea aditzaile, erregeek zin egiten zuten, berek begiratzuz, berek maitatzuz, begiraraziko, maitaraziko zituztela euskaldunen sinestea, ohidurak, beharrak. Orduan bakarrik, ziren ezagutuak, erresumaren buruzagitzat eta ohoreak bihurtuak zitzaizkoten.

Mendez mende, arbasoz arbaso, herrikoz herriko, etxekoz etxeko, euskaldunak suharki erabili ditu, hastapenean, lehen Zaharrek aldapa mokoko Haritzaren gerizan gogoratu zitzaizkoten ohidurak.

Zorigaitzez, mundu huntan ez da nehor, ez da deus betirako. Adinak, haritza, emeki-emeki, ihartarazi zuen. Bainan, ordu zelarik, zuhaitz zaharrak bota eta erain zuen ezkurra, nahiz ordaina utzi. Bere ondokoa handitzen ikusiz, hil zen xutik, erroak lurrean barna korapilatuak. Geroztik, enbor omentsua, iraganaren orhoitgarri miresgarria, bere sementa den bigarren haritzaren ondoan berinazko barne argi batean da zaindua.

Zerua erakutsiz; erhi bat iduri du ; hala ere, bihotzen oihartzunetan adiarazle dago :

« *Jaungoikoak egin ninduen euskararen, euskaldunen, nere haurren begirale. Urte aintz eman dauzkit. Ihartu nau bainan ez usteldu, hor du handiarazi nere ordaina, nere odol berekoa, ni nintzen bezain eguzkiz gose, haizeen soinu, itzala bere enborpean logaitz.* »

Haritz gazteak, aintzinekoa bezain xut eta bortitz, derama ahuldurarik gabe, gertakarien bortxadura nahasduengatik, lehengoek, mendeek moldatu sail euskalduna.

Gizonen nahikeria itsu eta tzarrak kendu ditu koroak erregeen buruetarik, urrunarazi Gernikako zuhaitzetik erresumen bertze aintzindariak ezin jasanez « *Jainkoa eta Lege Zaharra* », errabiaz euskara suntsitu beharrez.

Gogor egin dute euskaldunek. Tresna hondatzaile izigarrienek sua eta heriotzea hedatu dituzte euskaldunen arbolaren inguruan. Debaldetan.

Aldapa mokoko Haritz iharra xutik dago eta, ondoan, Haritz gaztea « *eguzkiz gose, haizeen soinu* », perde eta gotor dago.

Izigarrikeria horiek ez ditazke ahantz.

Bainan zorion eta fidantzia indargarriek bihotzak, gogoak berotzen, pizten, altxatzen dituzte, zeren daukan jori ezkurra Gernikako Haritzak ; zeren ere euskarak, bere haizeaz, ari baitu gero eta gehiago mundu zoko gehienetarat hazi miragarria helarazten.

Jenden herrak, tresnek, galernek ez dute erroz gora botako gure Zuhaitz Saindua. Ez gaiten izi, ez gaiten lotsa. Zuhaitz bat egiteko ezkur bat aski da.

Eta euskal lur berezian eraina dago sekulakotz, Jainkoak berrituz, behar den eta den ezkur salbagarri betierekoa.

Dominique DUFAU



**GERNIKA** --- Mars 1952

## **Noe-ren Arka** <sup>(1)</sup>

Denek ikasi dugu, badakigu, Noe-ri Jainkoak eginarazi zion Arka — geriza zezan bai abereak, bai animalia guzietarik biga— uholdeak, luzaz erabili-ta, helarazi zuela « Ararat » deitu tokirat eta han kokatu zela.

Diotenaz, 80.000 idazlanek, Liburu Sainduak barne, 72 erdara edo hizkuntzetan aipatzen dute untzi hori eta urite ikaragarri hura.

Idazkiek bilatzen dute suntsidura izigarria noizkoa den eta ere jakin nahi dute zer egurrez egina izan zitekeen delako Arka.

« Ararat » mendiak zabaltzen dire Turkia, Armenia, eta Irango mugetan. Punta gorena deraukala 5.165 metratan.

Ustea zen, ainitz denboraz, uholde handi hori 'alegia' bat zela. Izan da ere sinestea —zonbait gogo sineste hortaz oraino ere beharbada beteak dautzi (dagotzi ≈ daude)— Noe-k, euskalduna zelakotz, oihu egin zuela : « [h]ara, [h]ara ! » erakutsiz, erauntsiak atertu-ta, lur puska bat, ur artetik noizbait agertu zenean, eta geroztik dela izen hortaz deitua agorrerriak menditu zuen eremu hori.

Jakintsunek eskuratzen dituzte gero eta gehiago frogak mundua ito izan zen uholdea gertatu zela ; Noe-k egin zuela untzi bat oso dagona, usteltzen ez dena.

Turkiar bilari batzuk ohartu ziren, 1833an, Ararat-ko malda zoko batean, 3.000 metrako goratasunean, hormapetik ateratzen zela untzi handi eta zahar baten ur-epaia (?).

1892an eta geroztik oharpen berak eginak eta ezagutaraziak izan dire.

1929an, jakintsun andana batek miatu ditu bazter berak, eta, urratsek hala eremanik, heldu izan da hormak estali ez duen untiaren ur-epaiara (?). Ahal bezain ontsa ikusi diozkate barneak eta kanpoa. Itzuli dire, jakintsunak, segurtamenarekin leku hartan aurkitzen dela Noe-ren Arka.

1949an Amerikano bilatzaile multxo bat entseiatu da, debaldetan, Arkari hurbiltzea. Aroak ez ditu lagundu.

Frantses batek badu xedea gateko (joateko), zonbait lagunekin, mendu hetarat nahizik, bereziki, ezagutu, ahal bezain xuxen, egur eta zureri esker, Arka-ren adina amoregatik eta jakina izan dadin uholdearen egiazkoa urtea.

Ez dezakegu baieza 'Ararat' hitza euskalduna dela, ez eta Noe euskalduna zela ; bainan egia bada mundua urpean sartu zuen gertakariaren aipamena egin izan dela 72 erdara edo hizkuntzez, atseginekin diogu 73garren mintzaira batek ere Jainkoaren nahi lazgarria bera orhoitarazten duela.

Mintzaira hori da euskara. Huna zer irakurtzen dugun, « *Noe-z, Arkaz eta Uholdeaz* » Axular handi eta famatuak, orai duela hiru mende, egin eta « GERO » deitu zuen liburuan :

« 80. *Gure Jaungoikoak ikhusirik jendeak jarri zeitzala gaiztakeriari, erran zuen bihotz min handi batekin, zeren berak nahi etzuen munduko bekhatuek eragiten baitzeraukaten : Neurk egin nuen gizona, neurk deseginen dut, kenduko lurraren gaiñetik. Eta hunetakotzat, deitu zuen Noe zeritzan gizon bat, zein, bera zortzigarren etxatier guztia gerthatu baitzen on eta justu, eta hari erran zioen : Bethe da mundua bekhatuz eta maliziaz, gaiñez egin hurran du gaiztakeriaz.*

*Eta hala deliberatu dut guztien, uholde batez, desegitera eta hondatzera. Ordea, eman nahi derauet asti, ephe, termino eta espazio bizitzeko eta penitentzia egiteko, ehun eta hogoi urte. Eta bitarte hunetan zuk, erraiten dio Noe-ri, bertzeen abisatzeko, eta zeure etzekoen salbatzeko, eta halaber animalia suerte guztietarik haziaren eta arrazaren gelditzeko, eginen duzu untzi bat, barkha handi bat, erran den gauzako aski handi datekeien bezalakoa. Eta hala egin ere zuen. Eta hartan sarthu zirenak bizirik salbatu eta eskapatu ziren eta ez bertzerik.»*

« 81. *Orain hemen behar da kontsideratu puntu bat. Untziaren eragiterakoan erran zerauen Jainkoak igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez. Baiña, baldin kontua ongi atheratzen badugu, edirenen dugu, etzerauela iguriki ehunez baizen.*

*Zeren ageri da, ezen, untiaren edo barkharen egiteko manua izan zuenean bortzetan ehun urte zituela Noe-k, eta gero, seietan ehunetara heldu zenean, ethorri zela uholdea. Zer erran nahi du bada hunek ? Promesa igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez eta ez iguriki ehunez baizen ? Non dira gaiñeratekoak ? Zer murrizte da hau ? Zergatik ez du bere promesa osoki konplitzen ?»*

« *Ihardesten du San Chrisostomok : Eta da arrazoiña : prometatu zerauen igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez, ez ordea iguriki ehunez baizen. Zeren ehun eta hogoi urthez egin behar zituzten bekhatuak edo egin behar etzituztenak ehunez egin baitzituzten, ehunez neurria bethe baitzuten. Eta nola neurria bethez gero ezpaitzen zer gehiago igurikirik, halatan, nola berak lehiatu baitziren bekhatu egitera eta neurriaren bethetzera, deliberatu zuen, Jainkoak hei biziaren laburtzera eta hogoi urtheren denboraren guttzera eta ephaitera. »*

Jakinean gare Noe-z, Arkhaz, Uholdeaz, haatik jakin dezagun eta ez sekulan ahantz Axularren bertze egia hau :

*« Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu nola latinez, frantsesez edo bertze erdaraz, eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.»*

Dominique DUFAU

---

(1) OHARRA, H.D. 2006. Noe-ren Arka = L'Arche de Noé. (« arche » du latin 'arca', coffre). Ikus (interneten) Pedro Agerre « Axular » GERO, IX. kapitulua, 3. zatia (80-81). Egilea : Josu Lavin ; Urkiola, 1-1C 48990 Getxo (Bizkaia).



AGUR --- Juin 1954

## Bi pilotari

Ez bada, zonbaitek luzaz uste zuten bezala, pilota eta pilota jokoa euskaldunaren gogorapenak asmatua, euskaldunak bakarrik du begiratu eta, mendeek eman ahala, beti edertuz, plazatako jostagarri edergarriena joko hori bilakarazi.

Denboraz, ez zen pilotan aritzen luzean baizik, besainka ala esku-huska, buruz-buruka edo multxoka. Ez du hain aspaldi irakur zitakeela erreboten paretetan manu hau : « **Debeku da pleka aritzea** » erran nahi baita pilotan aritzea murrua joz.

Zonbat eta zonbat pilotari, batzu bertzeak bezain omengarriak, behar ginituzke aipatu... Biga hautatzen ditugu.

Bat, Hiriart jaun medikua, Baionako baldarnapezaren anaia, bizi zen Makaian (Makean) orai duela berrehun bat urte. Medikuntzan bezain trebea zaukaten pilotan, bietan omen handia zuen. Asko partida egiten zituen, guti galduz, hainitz irabaziz. Orotarik bat da bereziki aipatua.

1755ean, uztailaren 25-an, Baionako orduan « *Place Grammont* » deitzen zuten tokian (Erreboluzioenez geroztik dauka « *Place de la Liberté* » izena) agertu zen bertze sei pilotariek. Euskal Herri bazter gehienetarik eta Espainiatik, osteka, bildu ziren ikusleak. Partidak iraun zuen hainitz. Hiriart jaunak eta bere lagunak galdu zuten.

Ondoko ortzegunean pilotari berak, toki berean, jokatu zuten berriz eta gure jaun medikuak irabazi.

Idazleek diote bertzalde, Hiriart jaunari loheria lotzen zitzaiola elizan jaun erretoaren prediku denboran.

Aldi batez, apezak samurturik, manatzen diote lo zagon medikuaren ondokoeri :

— *Atzarraraz zazue gizon hori !* Bainan Hiriart jauna ez baitzagon arras lo, ihardesten dio :

— *Barkatu jauna, zure eginbidea da gu ororen atzarrik egonaraztea, ez lokarraraztea !*

Aparantziaz bezperan jaun medikuak irabazi omen ziozkan jaun erretorari buruz-buruka jokatu zituzten partida guziak.

Bertzea da, euskalduna ez izanik ere, haurrean pilotan aritzea laket zitzaien elizak aldaretarat helarazi duen sainduetan miresgarrienetarik bat : San Luis Gonzague-tarra (1568-1591). Goiz batez, joko hortan gorputzez eta arimaz ari zelarik hurbiltzen zaio bere irakasle apeza eta erraten dio :

— *Luis adi zazu ! Orai berean balitz munduaren akabantza eta deitua bazine Jainkoaren aintzinerat jujatua izateko, zer egin zinezake ?*

— *Jauna, dio Luis gazteak bere irri gozoenarekin, ez nindeke geldi pilotan aritzetik.*

Eta erran bezala segitzen du hasia zuen partida. Ah, pilotariak ! Zer begirale handia zinuketen saindu espantagarri hori, pilota jokoa ere maite zuena !

Dominique DUFAU.

---

OHARRA, H.D. 2006. D. Dufau-k « Agur » aldizkarian idatzi dituen artikuluek badute itzulpena. Hunenik ez dugu, haatik, aurkitu ahal izan.

*NDLR, H.D. 2006. Les articles de D. Dufau dans « Agur » possèdent une traduction en langue française, mais pour celui-ci, nous n'en avons pas trouvée.*



AGUR --- Décembre 1954

## Eguberri

Zerutik lurrerat gau huntan,  
Zare gure arterat jautsiko.  
Neguak oihanetan  
Abar ttikiena du xuriz beztituko.  
Elurra geldituko da  
Ez dadien gal zure urrats-hatza.  
Eta zure lagun, osteka  
Izarrak zoin lehen lasterka...

Haur xumeen sehaskeri  
Beha diozute <sup>(1)</sup> amultsuki.  
Aingeruekin direla baltsan  
Dute gozoki amesten.  
Kantu ederrenez heiekilan,  
Zaituzte goraki laudatzen.  
Eta kalotxak bete-ta gauz onez,  
Begitartea goxa diozute <sup>(1)</sup> musu batez.

Ahopetik ez daitzin <sup>(2)</sup> atzar,  
Urruntzean diozute <sup>(3)</sup> erranen :  
« Aita, ama dituzue maitaturen,  
Bila eta egin ongia, lagun elgar,  
Izan tzarkeriaren higuintza,  
Gaixtoeri barka, ez gal esperantza,  
Ager zaizte <sup>(4)</sup> beti bortitz eta on,  
Taigabe <sup>(5)</sup> nago zuekin. Gau on. »

Dominique DUFAU

-----  
OHARRAK, H.D. 2006.

(1) « diozute » hori inperatiboa bada « zozute » ; batuaz « iezaiezu ».

(2) [daitzin] daitezen.

(3) diozute ≈ diezu.

(4) [zaizte] zaitezte.

(5) « taigabe », xuberotar hitza, harainoko « idekidura » amultsu bat erakusten dukeena ; adiera : ≈ gelditu gabe ≈ geldi-geldia ≈ etengabe...

## *Noël*

*Du ciel sur la terre cette nuit,  
Vous descendrez parmi nous.  
L'hiver, dans les bois,  
Vêtira chaque rameau de blanc  
La neige cessera de tomber  
Afin que ne soit effacé la trace de vos pas  
Et en foule, à qui mieux mieux,  
Les étoiles vous feront cortège.  
Contemplez affectueusement  
Le berceau des petits enfants.  
Ils rêvent doucement  
Qu'ils se confondent avec les anges,  
Ils vous louent en chœur,  
De leurs plus beaux chants.  
Et, après avoir rempli les sabots de bonnes choses,  
Caressez leur la joue d'un baiser.  
Dans un souffle pour ne point les réveiller,  
Vous leur direz en vous éloignant :  
« Vous aimerez Père et Mère,  
Recherchez et faites le bien, aidez-vous mutuellement,  
Ayez la répulsion du mal,  
Pardonnez aux méchants, ne perdez pas l'espérance,  
Montrez-vous toujours courageux et bons,  
Sans cesse je suis avec vous... Bonne nuit !»*

*Dominique DUFAU*



AGUR --- Février 1955.

## Anjelus

Iguzkia oraino sutan, bainan dirdira galdua, itzaltzen ari zen, emeki emeki, mendiaren gibelean eta gaua zabalduz zoan. Herriko baldarnapeza, biharamun arte saila utzita, abian zen bere lan tokitik kanporat non, hainbertzenarekin, jotzen duten atean.

— Idek eta sar ! manatzen du.

Agertzen zaizko gizon bat eta emazteki bat, biak bat bertzea bezain kopetaz ilun, biek begiak zorrotz eta tzar.

— Hurbil zaizte ! zer gertatzen zaizue ? galde egiten diote herriko buruzagiak.

— Jauna, ihardesten dio gizonak, emazteki hunek izen-goiti itsusi batez agurtu nau. Ekarrarazi dut zure aintzinerat, nahi bazuen edo ez, nere « ohorea garbi dezan ».

— Barkatu Jauna, dio emaztekiak auzapezari, ez naiz faltadun. Ez nakien izen-goitia zuela. Denek hizkuntza hortaz deitzen dute.

## Angélus <sup>(1)</sup>

*Le soleil, disque rouge sans éclat, disparaissaient lentement derrière la montagne et la nuit s'étendait déjà. Le maire de la commune, délaissant sa tache jusqu'au lendemain, s'apprêtait à quitter son cabinet quand l'on frappe à la porte :*

*— Ouvrez et entrez ! ordonne-t-il.*

*Apparaissent un homme et une femme aussi sombres l'un que l'autre et dont les yeux fusaient la haine.*

*— Approchez-vous. Que vous arrive-t-il ? interroge le magistrat municipal.*

*— Monsieur, répond l'homme, cette femme m'a salué d'un surnom injurieux. Je l'ai conduite, malgré ses protestations devant vous, qu'elle « lave mon honneur »*

*— Pardon Monsieur, proteste la femme, je ne suis pas coupable. J'ignorais que cette appellation pouvait être un surnom. Tous l'appelaient ainsi.*

— Ausart gezurti tzarra !  
marraskatzen du gizonak,  
mehatxatzen duela eskarniatzailea  
presondegi beltzenaz, dorpeenaz,  
ez baziozkan, berehala, ehun libera  
ematen « ohore garbitze » sari.

Hasten dire hasten —oi zer  
kalapitan !— oihuka, keinuka,  
sakreka, arrazoinka, ez zakiten,  
gehiago zer erraten zuten hain-  
bertzetaraino kexuak itoak  
zauzkan.

Bet-betan, tenorea hala zelakotz,  
elizako ezkilak jotzen du Anjelusa.

— Xo ! Anjelus ! ohartarazten du  
emaztekiak.

Haroa ixiltzen da kolpez. Hiruak  
xutitzen dire, gizonak  
buruhastuak, eta erraten dute,  
humilki, Mariaren otoitza.

— Jainkoak daukula gau on eta  
bakea ! dio emazteak azken  
kurutze seinalearen Halabiz-ean.

Baldarnapezak behatzen dio  
gizonari :

— Aditu duzu ? Jainkoak daukula  
bakea !

Errenkuratzaileak, apezagatua,  
ihardesten dio gozoki :

— Arrazoin duzu, Jauna. Bakea  
izan dadiela gure artean. Zer nahi  
duzu, izengoiti bat eman balin  
badautate ez dut nik hautatua,  
bainan ez dezaket, nahi guziak  
eginik ere, gogoetarik eta  
mihietarik ken.

— *Effrontée menteuse ! hurle  
l'homme la menaçant de la prison  
la plus ténébreuse, la plus dure, si  
elle ne consentait pas à lui payer,  
immédiatement, une somme de  
cent francs comme compensation.*

*Et tant la fureur les exaltait, quel  
débordement de cris, de jurons,  
d'insultes, de vociférations !*

*Soudain, étant l'heure, la cloche  
de l'église tinte l'Angélus.*

— *Silence ! l'Angélus... observe la  
femme.*

*Les invectives cessent aussitôt. Les  
trois se lèvent, les hommes  
découverts, et murmurent  
dévotement la prière à Marie.*

— *Que Dieu nous accorde une  
bonne nuit et la paix ! souhaite la  
femme après l'Amen du dernier  
signe de croix.*

*Le Maire regarde l'homme :*

— *Vous avez entendu ? Que Dieu  
nous donne la paix !*

*Le plaignant calmé répond  
doucement :*

— *Vous avez raison Monsieur.  
Que la paix soit parmi nous. Que  
voulez-vous, si l'on m'a gratifié  
d'un surnom, je ne l'ai point  
choisi et je ne peux, malgré mes  
révoltes, le supprimer des esprits,  
ni des langues.*

Dohala emazte hau barkatua.  
Jainkoak dakiola, guri bezala, gau  
pausagarri bat.

Eta buruzagia agurtu-ta, elgar ere,  
badoatzi bakotxa bere alde.

*Que cette femme s'en aille  
pardonnée. Que Dieu lui réserve,  
ainsi qu'à nous, un bon repos.*

*Et après avoir salué le chef de la  
commune, puis s'être salués,  
l'insulté et l'insulteuse  
s'éloignèrent chacun de leur côté.*

*Note. Il existe encore dans notre région, la curieuse coutume de demander une indemnité en argent pour injure ou pour préjudice moral. On appelle cette sanction « Laver l'honneur » ou encore « Acheter l'honneur ». Elle faisait souvent, avant la Révolution, l'objet d'un acte notarié. La scène ci-dessus s'est déroulée devant le narrateur à l'époque où il présidait aux destinées de la commune.*

Dominique DUFAU

---

*NDLR, H.D. 2006. AGUR a publié cette traduction dans son numéro d'avril.*



AGUR --- Juillet 1955.

## *Esquisses basques*

*Chant, danse, irrintzina.*

*Aux heures des vagissements ou de sommeil de l'enfant, la Basquaise chante une de ces berceuses dont la musique simple, étrangement mélodieuse, mélancolique, fait rêver l'ange aux Anges :*

Lo, lo nere maitea,  
Lo, ni naiz zurekin.  
Lo, lo paregabea,  
Nigarrik ez egin,  
Goizegi da ! Munduko  
Gelditzen bazira  
Nigarretan urtzeko  
Baduzu denbora

Lo, lo, zeruetarat  
Airatu bazare.  
Ez bihur, zu, lurrerat  
Ardietsi gabe  
Zu ongi altxatzek  
Enetzat grazia,  
Guziz eni hortako  
Zait ezti bizia

*Dormez, dormez, mon aimé,  
Dormez, je suis auprès de vous.  
Dormez, dormez incomparable,  
Ne pleurez pas,  
Il est trop tôt !  
Si vous devez vivre en ce monde  
Vous aurez tout le temps  
De vous fondre en larmes.*

*Dormez, dormez, si vers le ciel  
Vous vous êtes envolé,  
Ne retournez pas sur la terre  
Sans avoir obtenu  
De bien vous élever  
La grâce pour moi.  
Car c'est surtout pour cela  
Que la vie m'est douce.*

*Dès que les premiers pas du bambin sont moins hésitants, la Basquaise prend un naïf plaisir à lui faire esquisser quelques pas de « mutxiko » ou de « fandango ». Sa joie est bruyante devant les maladresses ou les progrès du petit danseur :*

— Emak hor ! aita bezain dantzaria bilakatuko haiz. Bainan, ttikitto, beharko duk, haatik, oneski jostatu. (*Bravo : Tu deviendras un danseur aussi émérite que ton père. Mais, petit, tu t'amuseras honnêtement*)

*Elle lui apprendras aussi les vieux et beaux chants d'Euskal Herria, afin de chanter plus tard, les cantiques à l'église, les bertsu à l'auberge :*

— Nork daki ! bertsulari aipatuenetarik bat ager diteke ondoko egunetan ! O agian ba ! (*Qui sait rêve-t-elle, il pourrait se révéler un improvisateur réputé ! O ! que cela soit !*)

*Elle l'exerce également, à pousser avec sûreté, force, éclat et art, ce cri national, cet irrintzina qui, dans la détresse, comme dans la joie, emplit cimes, vallons et vallées :*

— Eian, maitea, irrintzina bat aitak, xirimolatzen duen bezala ! (*Voyons, chéri, un « irrintzina » comme le module ton père !*).


*L'essai amuse l'éducatrice et, simulant dans un rire cristallin, l'émerveillement, elle s'exclame :*

— Hola ! hola ! goiz gizon ! Oihartzunak atzarrarazten, harriarazten ditutzu ! Ixil zaite, nahasaraziko ditutzu ! (*Bien, bien vaniteux ! Vous réveillez et effrayez les échos ! Taisez-vous, vous aller les fausser !*)

Oihu gora garratza zen nola emaztearena,  
Azkarra eta bortitza nola gizonarena,  
Artetan gero erranen zen ihizi basa batena,  
Zerbait atxikitzen zuela oraino jendearena.

*C'était un cri aigu comme celui de la femme,  
Fort et rude comme celui de l'homme,  
Par moment il ressemblait au rugissement d'un fauve,  
Tout en conservant, cependant, quelque chose d'humain.*

Dominique DUFAU



*NDLR, H.D. 2006. Danses basques « Mutxiko » au fronton de Saint-Pée en 1906. Il nous semble reconnaître les « volants » de Garazi... Reste à savoir en quel honneur...*

OHARRA, H.D. 2006. Senpereko errebotean mutxikoak dantzaten 1906an. Iduriz Garaziko bolantak...Zer karietarat ote ?



AGUR --- Septembre 1955

## Etxeko arnoa

Euskaldunak maite du arnoa bertzeek bezala, bertzeek bezainbat, bainan ez dauka deus etxeko mahastiko edo herriko mahastietako arnoaren parekorik. Bazkari batean, jostagura batek ohartarazten du etxeko nagusia, saldatik kaferaino arno beretik edanarazten ziotela komiteri.

— Adixkide ona, zure ahantzaldiak nau harritzen. Bizkitartean, aditu duzu, asko aldiz nik bezala, gure jaun erretora predikatzen Jesus Jaunak, Kanako ezteietan, ura arno bilakarazi zuelarik, mutilen buruzagiak erran ziola etxeko jaunari: «Toki huntan, jauna, usaia da arno ona hastapenean edanaraztea eta tzarra akabantzan eta zuk, hoberena duzu geroko erresalbatu.»

— Ez zaitela asalda, lagun maitea, mozten dio etxeko nagusiak.

Goizean asmatua nuen behar nuela, Testament Zaharreko erranaren begiratzeko, zombait botoila arnoren ondotik, zerbitzarazi pitarra nasai. Beharrik gogoratu zait Kana-ko mirakulua zu ikusi bezain laster, bertzenaz sotoan arno baino pitar erautsiko zen.

## *Le vin de la maison*

*Le Basque aime le vin comme les autres, autant que les autres, mais il estime que rien n'égale le vin de sa maison, le vin récolté dans sa vigne où dans les vignes du Pays. Dans un festin, un plaisantin fait remarquer au maître de la maison que, depuis le potage jusqu'au café, il faisait boire le même vin à ses convives.*

— *Cher ami, lui dit-il, je suis surpris de votre oubli. Pourtant vous avez souvent entendu, comme moi, M. le Curé prêcher que, lorsqu'aux noces de Cana Notre Seigneur Jésus-Christ convertit l'eau en vin, le majordome observa au maître de la maison : « En ce lieu, maître, il est d'usage de servir le bon vin au commencement du repas et de faire boire le mauvais après et, vous, vous en avez réservé le meilleur pour la fin. »*

— *Ne vous inquiétez pas, mon cher camarade, réplique l'amphitryon.*

*Ce matin, j'avais songé que, par respect de l'Ancien Testament, je devais, après quelques bouteilles de bon vin, faire servir de la piquette en abondance. Fort heureusement, le miracle de Cana m'est venu à la mémoire dès que je vous ai aperçu, sinon, on aurait tiré au chai plus de piquette que de vin...*

— Aski irri : nere etxeko arnoa da mahain huntan. Iduritzen zaitzu baditakeela arno hobeagokorik ? Ba ote da euskaldunarentzat, etxeko arnoa hautsiko duen arnorik ? Erran gabe doa, ezin bertzean, euskaldunak pitarrez betetzen duela basoa. Haatik grazia guti urari, zeren :

*Ura usain gabeko zerbait,  
Kolorea galdurik nonbait,  
Errotaren hazkurri,  
Gupelaren ustelgarri.*

— *Assez de plaisanterie ! Sur cette table est servi le vin de ma maison. Vous semble-t-il qu'il puisse s'en trouver de meilleur ? Est-ce que vraiment, il existe, pour le Basque, un vin supérieur à celui qu'il récolte dans son bien ? Parfois ne pouvant mais, le Basque se résigne à remplir son verre de piquette. Il n'a que du dédain pour l'eau, parce que, affirme-t-il :*

L'eau est quelque chose sans parfum,  
Ayant perdu sa couleur quelque part,  
Elle nourrit le moulin,  
Elle fait pourrir le fût.

Dominique DUFAU





AGUR --- Novembre 1955.

## Euskaldun zirtoa

Mikel ikazkina eta bere mutila, —  
nagusia aintzinean, mutila  
ondotik— gaki (joaki) ziren, haia-  
haia eta mutu, mendia gora, beren  
lan tokirat.

— Mutil ! dio bet-betan Mikelek.  
— Zer nahi duzu nagusia ?  
— Zer bazkarittoa eginen dugun  
heltzearekin... nik segurik !

Hor urrunxago, erbi bat, kolpatua,  
sasitik ateratu-ta, hil gogorra  
etzatzen da ikazkinaren oinetan.

Berehala, Joan-Mikelek hartzen du  
animalea eta bizkarretik dilindan  
zuen zakuan sartzen.

Hainbertzenarekin, agertzen dire  
zakurrak eta ihiztariak. Mutilak,  
irri maltzur batekin, erakusten  
diote erhiz zakua ihiztariari.

— Zer duzu zaku hortan ?  
jazartzen zaizko hauk.  
— Deusik !  
— Zer, deusik ?  
— Egiaz, hutsa da.  
— Ba, jakinen dugu laster.

## Humour basque

*Michel, le charbonnier et son  
domestique —le maître devant, le  
domestique lui emboûtant le pas—  
grimpaient vivement et sans mot  
dire, la montagne vers le lieu de  
travail.*

— *Garçon ! dit soudain Michel...*  
— *Que désirez-vous, maître ?*  
— *Quel excellent repas nous  
allons faire à l'arrivée... moi du  
moins !*

*Voilà qu'un peu plus loin un  
lièvre, blessé, sort du fourré et  
s'étend raide mort aux pieds du  
charbonnier. Promptement,  
Michel prend l'animal et  
l'introduit dans le sac qui pendait  
à son dos. Sur ces entrefaites  
apparaissent les chiens et les  
chasseurs.*

*Le domestique, avec un sourire  
malicieux, montre du doigt le sac  
aux chasseurs.*

— *Qu'avez-vous dans ce sac ?  
rétorquent ceux-ci.*  
— *Rien.*  
— *Comment rien ?*  
— *En vérité, il est vide.*  
— *Vraiment ? Nous le saurons  
immédiatement.*

Kentzen diote zakua, ideki-ta kausitzen dute erbia. Jo, umatzen dute Mikel gezurtia eta urruntzen dire ihiziarekin.

— Nagusia !

— Zer nahi duk ?

— Zer panpak hartu ditugunak, zuk segurik...

\*\*\*\*\*

— Gure xerri xola arras zikindua da, dio emazte batek senarrari. Iduri du arrunt « tribunal » bat. Behar liteke, desohorez ere, garbitu.

— Zerbait diozu, emaztekoa. Zikin ala garbi, beltz edo argi, denak kondenatuak ateratzen dire toki hortarik.

\*\*\*\*\*

Guziek bezala, euskaldunak badauka beldur bat Jaun kasketadun eta xapeldunentzat (jandarma eta jujentzat) ;

— Hobe dire, dio, gizon mota horiek etxetik urrun ikusi. Bareek bezala uzten dituzte arrastoak. Horien aztaparretan sartzen denak ikasten du « mea culpa » zer den eta « parce domine » ez dela doakoten otoi-tza.

\*\*\*\*\*

*Ils lui enlèvent le sac, l'ouvrent et y retrouvent le lièvre. Ils rouent de coups Michel, le menteur et s'éloignent avec le gibier.*

— *Maître !*

— *Que veux-tu ?*

— *Quelle rossée nous avons reçu... vous du moins !!!*

\*\*\*\*\*

— *Notre loge à cochons est affreusement sale, dit une femme à son mari. Elle ressemble tout à fait à un tribunal. Il serait déshonorant de ne pas la nettoyer.*

— *Vous avez raison, femme. Sale ou propre, noir ou lumineux, tous sortent condamnés de ce lieu.*

\*\*\*\*\*

*Comme le commun des mortels, le Basque a la crainte des Messieurs casqués et chapeautés (les gendarmes et les juges).*

— *Il est préférable, dit-il, de voir ce genre d'hommes loin de sa maison. Ils laissent des traces comme des limaces. Celui qu'ils accrochent apprend ce qu'est « mea culpa » et que « parce domine » n'est point la prière qui leur plaît.*

\*\*\*\*\*

— Mutil gaitza duzu, Batista !

— Hala da eta « astronomoa » da.

— Zer erraten duzu ?

— Ba, hameka orenetan eguzkiari beha gelditzen da jakin nahizik eguerdi denez...

Alferra zen, mutil debrua.

— *Vous avez un domestique remarquable, Baptiste !*

— *Cela est vrai et c'est un astronome...*

— *Que dites-vous là ?*

— *Oui à onze heures il contemple le soleil pour savoir s'il ne serait pas midi !*

*Le diable de garçon était paresseux.*

---

Dominique DUFAU

---



« Oui Chers parents, dans 430 jours je quitterai cette horrible caserne pour être libre et maître de ma noble personne (...). Ce sera l'un des plus beaux jours de ma vie. Je trouve cependant le temps bien long et les jours ne s'écoulent pas assez vite à mon gré. Enfin patience encore ! C'est un peu à contre-cœur.... nous sommes mis.... mardi matin.... »

NDLR, H.D. Partie de lettre avec dessin personnel de Dominique Dufau lorsqu'il était militaire à Bayonne en 1902. « Eskualtzalea » nous parle de ses talents de dessinateur à la page 202. Nous en avons ici la démonstration !

5 mai 1918

Bien Chère Luamay, bien chère  
sœur,

C'est avec un véritable plaisir  
que je lis votre lettre. Depuis que le  
Bon Dieu nous a enlevé notre cher  
papa, vous laissant seule et affligée,  
mon impatience de vous lire, d'avoir  
de vos nouvelles a accru encore.

Bien souvent, devant mon impos-  
sibilité de me rendre près de vous,  
de vous reconforter selon mon désir  
et votre besoin, j'éprouve de  
violente révolte. J'ai par moment  
tant peur, cela est compréhensible  
et naturel, que <sup>vous</sup> ne puissiez surmon-  
ter votre tristesse. Cette impatience  
m'obsède surtout quand je ~~vois~~ <sup>vois</sup> l'air  
rien de vous. Aussi vous comprendrez  
aisément quel soulagement, quel

NDLR, H.D. 2006. Lettre de Dominique Dufau du 05/05/1918.  
La copie dactylographiée par nos soins est à la page 199.

apaisement m'apporte Chacun de vos  
 mots. Votre Sante est bonne; vous êtes  
 vaillante, très chère Mary, et toi, chère  
 Alex, tu es énergique et vigilante. Je  
 suis heureux de votre résignation, et soyez  
 certains qu'elle est agréable à notre  
 papa aimé. Oui, il faut réagir beau-  
 coup; le Bon Dieu nous aidera mieux;  
 ça ne faut pas désespérer et reconnaître Sa  
 Volonté et s'y soumettre dévotement.  
 Songez également que notre courage est  
 d'autant plus ferme que le votre est  
 réel. Vous n'ignorez pas qu'il nous en faut  
 beaucoup, soit pour ne pas nous laisser  
 abattre par ce deuil cruel, soit pour  
 faire tout notre devoir. Vous nous aiderez  
 en surmontant votre peine, comme nous vous  
 aiderons par notre profonde affection, par  
 notre dévouement absolu. Depuis deux jours  
 j'étais un peu indisposé. J'avais l'esto-  
 mac lourd et se refusait à fonctionner.  
 Une bonne purge a eu l'effet de vous faire  
 vouloir et à ce moment, je me sens  
 plus disposé que jamais. Le calme est

NDLR, H.D. 2006. Lettre de Dominique Dufau du 05/05/1918.  
 La copie dactylographiée par nos soins est à la page 199.

Reçus par lui. Les boches ont reçu une  
 verte leçon, et attendant qu'ils reçoivent  
 la lâche méritée. Il est probable que  
 bientôt nous serons plus tranquilles et  
 que ma permission approche. Ils ont de  
 patience encore. Il est bien entendu que  
 je vous préviendrai dès que je connaîtrai  
 la date exacte de mon départ. Vous  
 avez bien fait de loger ces pauvres  
 malheureux. Si vous voyez leur détresse  
 comme nous le voyons, vous seriez encore  
 plus émus. Non, vous ne pouvez pas vous  
 faire la moindre idée de horreurs de  
 la guerre. Des villages, il ne reste que  
 l'emplacement; les champs, si riches en  
 culture, sont affreusement labourés,  
 retournés, hachés par les obus. Ces pauvres  
 gens ont dû tout abandonner. Il faut  
 voir les maisons abandonnées. On y trouve  
 de tout soit les plâtres, les amoncelle-  
 ments de pierres, de poutres, de tuiles. Malgré  
 notre habitude de ces désolations, nous sentons

NDLR, H.D. 2006. Suite de la lettre de Dominique Dufau du 05/05/1918.  
 La copie dactylographiée par nos soins est à la page 199.

le cœur se serrait devant ces specta-  
 -cles désolants. Sois bon pour ces  
 pauvres malheureux; c'est un bel  
 acte de charité que vous ferez. De  
 quelle région sont-ils? Peut-être  
 suis-je dans leur village? Tout  
 ce que tu fais ou que tu feras  
 sera bien fait, chère sœur.  
 Nous causerons de tout cela à mon  
 prochain séjour auprès de vous.  
 Si tu as quelques difficultés pré-  
 -tiens moi. Comment va Léon?  
 Lui aussi a dû sentir ce rude  
 coup. Ou courage, bien chère  
 maman, bien chère sœur; je ne  
 vous le dirai pas assez. A vous  
 toutes mes pensées les plus affec-  
 -tueuses, avec mes plus doux et  
 meilleurs baisers: votre  
 Dominique

**Coll. Claire Bergouignan**

NDLR, H.D. 2006. Suite et fin de la lettre de Dominique Dufau du 05/05/1918.  
 La copie dactylographiée par nos soins est à la page 199.

**5 mai 1918.**

Bien Chère Maman, bien Chère Sœur,

C'est avec un véritable plaisir que je lis votre lettre. Depuis que le Bon Dieu nous a enlevé notre cher papa, vous laissant seules et affligées, mon impatience de vous lire, d'avoir de vos nouvelles, a accru encore. Bien souvent, devant mon impossibilité de me rendre près de vous, de vous reconforter selon mon désir et votre besoin, j'éprouve de violentes révoltes. J'ai par moment tant peur, cela est compréhensible et naturel, que vous ne puissiez surmonter votre tristesse. Cette inquiétude m'obsède surtout quand je n'ai rien de vous. Aussi vous comprendrez aisément quel soulagement, quel apaisement m'apporte chacun de vos mots. Votre santé est bonne ; vous êtes vaillante, bien chère maman et toi, chère Alex, tu es énergique et vigilante. Je suis heureux de votre résignation et soyez certaines qu'elle est agréable à notre papa aimé.

Oui, il faut réagir beaucoup ; le Bon Dieu nous aidera mieux, car ne pas désespérer est reconnaître Sa Volonté et s'y soumettre dévotement. Songez également que notre courage est d'autant plus ferme que le vôtre est réel. Vous n'ignorez pas qu'il nous en faut beaucoup soit pour ne pas nous laisser abattre par ce deuil cruel soit pour faire tout notre devoir. Vous nous aiderez en surmontant votre peine. Comme nous vous aiderons par notre profonde affection, par notre dévouement absolu.

Depuis deux jours j'étais un peu indisposé. J'avais l'estomac lourd et il se refusait à fonctionner. Une bonne purge a eu raison de son mauvais vouloir et en ce moment, je me sens plus dispos que jamais. Le calme est revenu par ici. Les boches ont reçu une verte leçon, en attendant qu'ils reçoivent la raclée méritée. Il est probable que bientôt nous serons plus tranquilles et puis ma permission approche. Un bout de patience encore. Il est bien entendu que je vous préviendrai dès que je connaîtrai la date exacte de mon départ.

Vous avez bien fait de loger ces pauvres malheureux. Si vous voyiez leur détresse comme nous la voyons, vous seriez encore plus émues. Non, vous ne pouvez pas vous faire la moindre idée des horreurs de la guerre. Des villages, il ne reste que l'emplacement ; les champs, si riches en culture, sont affreusement labourés, retournés, hachés par les obus. Ces pauvres gens ont dû tout abandonner. Il faut voir les maisons abandonnées. On y trouve de tout sous les plâtras, les amoncellements de pierres, de poutres, de tuiles. Malgré notre habitude de ces désolations, nous sentons le cœur se serrer devant ces spectacles désolants.

Soyez bonnes pour les pauvres malheureux ; c'est un bel acte de charité que vous ferez. De quelle région sont-ils ? Peut-être suis-je dans leur village ? Tout ce tu fais ou que tu feras sera bien fait, chère sœur. Nous causerons de tout cela à mon prochain séjour auprès de vous. Si tu as quelques difficultés préviens-moi. Comment va Léon ? Lui aussi a dû sentir ce rude coup. Du courage, bien chère maman, bien chère sœur ; je ne vous le dirai pas assez. À vous toutes mes pensées les plus affectueuses avec mes plus doux et meilleurs baisers.

Votre Dominique





**BASQUE-ECLAIR** (Edition Pays Basque de l'Eclair des Pyrénées)

**Lundi 9 janvier 1956**

**LABOURD Saint-Pée-sur-Nivelle.** Décès de M. Dominique DUFAU

C'est avec émotion que nous apprenons la mort subite de M. Dominique Dufau survenue dans la nuit de vendredi à samedi.

Le défunt, ancien notaire et ancien maire, était une des plus belles figures représentatives du Pays Basque entourée d'une grande sympathie. Il avait été dévoué à toutes les causes généreuses. Pendant de très longues années il avait été aux côtés de M. Dassance Président, le trésorier de l'Euskaltzaleen Biltzarra.

Il s'est éteint à l'âge de 75 ans. À son épouse vénérée, à M. et Mme Soubelet et aux familles en deuil, nous présentons nos sincères condoléances.



**Vendredi 13 janvier 1956**

**LABOURD Saint-Pée-sur-Nivelle.** Obsèques de M. Dominique Dufau

Lundi ont eu lieu les obsèques de M. Dominique Dufau. Une assistance considérable l'a accompagné à sa dernière demeure. Parmi tant de visages étrangers on remarquait des prêtres amis ou eskualtzale, les maires et les notaires des environs, les conseillers généraux d'Ustaritz et de Saint-Jean de Luz, de nombreux amis venus à divers titres, les Anciens Combattants, etc.

Au cimetière, M. le Maire a retracé la carrière de M. Dufau : carrière de notaire coupée par la guerre 14-18 où il obtint la Croix de Guerre. Appelé à la mairie de Saint-Pée, il s'y dévoua pendant 16 ans pour laisser volontairement la charge en des mains plus jeunes. Il était également Conseiller d'Arrondissement, membre du comité de Eskualtzaleen Biltzarra, charges qu'il a remplies avec un entier dévouement.

Dans sa retraite il était l'auxiliaire que tout le monde recherchait dans les cas embarrassants et pour lesquels, lui, savait toujours trouver la solution satisfaisante.

M. le Maire a conclu en remerciant M. Dufau en son nom personnel et au nom de la commune et lui a dit un vibrant « Au revoir M. Le Maire ! ».

Nous renouvelons à sa veuve et à sa famille nos sincères condoléances.



**HERRIA** (Astekari euskalduna 1956-01-13)

**SENPERE**

**HERIOTZE**

Ortzirale aratsean, 75 urtetan, supituki hil izan da Dominique Dufau jauna. Ongi ezagutua zen, notari eta mera izana zelakotz eta eskuaraz hainitz okupatzen zelakotz. Jainko Jaunak har dezala bere lorian.

-----

**Dominique DUFAU SENPERTARRA**

Gizon alegera eta gixakorik izan bada nehor, Dominique zena halakoa zen. Notari ohia, auzapez ohia, bazuen lagun eta adiskide. Larresoroko Semenarion altxatua bere anaia zenarekin batean, handik bi gustu ereman zituen : Eskual Herriarena eta musikarena.

Eskual Herria izigarri maite zuen bai eta eskuara ere. Gure errebixtetan zonbat artikulu ez du ager-arazi ? Hondar denbora hautan Bordaleko « Agur » hilabetekarian irakur zitazkeen haren lerro baliosak, bai eskuaraz, bai erdaraz.

Orhoit egon dela hogoi eta ez dakit zonbat urte Eskualtzaleen Biltzarreko moltsero. Bilkuretan denek ongi-etorri egiten zioten, dena ixtorio pollit baitzen, xahar ala berri, eta orori bazuen hitz on bat errateko.

Bertze afizione bat bazuen : xirula. Ezin hobeki erabiltzen zuen, eta fama ederra bazuen bildua, xirulari gisa. Ez zituen airexka batzu joiten, bainan gauza bikain eta baliosak. Haren loria musikari on batek laguntzen zuelarik pianoan !

Erran behar dugu luma ona zuela gisa berean deseinen egiteko ; eta behin baino gehiagotan apaindu dauzku Eskualtzaleen Biltzarreko kartak eta gainerateko paperak. Erran behar litake ere zoin laket zuen zerbitzu egitea nor-nahiri, bere ahalen arabera. Hondar hilabete hautan ez zen hanbat ateratzen : 75 urtetan bere burua flakatzan ari sendi ote zuen ? Nehork ez daki : bera etzen deusetaz pleinitzen behin ere.

Ez gare guti harritu jakinik nola bet-betan bezala itzali den, bihotzak huts eginik. Jende-keta ederra bildu da haren ehortzetarat, auzapez, notari, eskualtzale, herritar, adixkide : aldare aintzinean dotzena bat apez.

Haren lagun eta ahaide guzieren gure doluminak eta haren arimarentzat gure otoitzik kartsuenak.

Eskualtzalea.




1922. Bestaberri. Ezkerretik eskuinerat :

- Jean-Baptiste Donetch, bikarioa, buruhas ;
- Jean Barbier, erretora, burukoarekin ;
- Dominique Dufau, auzapeza, 'haut-de-forme' xapela belanuen gainean ;
- Christophe Dufau, medikua, 'canotier' xapelarekin.

(Lurrean, eskuinetarik, Pierre Daguerre atabalaria)

OHARRA, H.D. 2006. Ikus argazki osoa 237. orrialdean.  
.....NDLR, H.D. 2006. Voir la photo entière à la page 237.

## **Bigarren partea**



**Christophe DUFAU**

OHARRA, H.D. 2006. Hil ondoko oroitgarritik ; ikus 229. orrialdean.  
*NDLR, H.D. 2006. À partir du document qui se trouve à la page 229.*

## Christophe DUFAU medikua

(1888 — 1922)

Dufau haurrideak hiru ziren : Dominique, Christophe eta Alexandrine. Gazterik zendu zelakotz ez dakigu gauza handirik Christophe-z, idatzietan irakurtuetaz kanpo. Baina idazkiak hain dira adierazkorrak kasu huntan nun ezinezkoa iduritu baitzaigu Dufau anaia bat aipatzean bertzea itzalean uztea ! Alta bada arreba Alexandrine-k ere eskerrik bizienak hartze ditu parropiari egin zion emaitza handiarengatik (ikus 15. orrialdean, 2 zenbakia). Heldu baita, hitz laburrez errateko, hirurek handizki ohoratzen dutela gure herria eta mereziko zuketela gure lan hau baino hobeagoko bat...

Christophe, medikua zen ofizioz eta gerlan harrapatu eritasun baten ondorioz hil zen, 34 urtetan. Jakingarria da Gerla Handiaren denboran, 1918an gripa helde gogor batek jo zuela gure herria, hil anitz eraginez. Dufau-tarren aita ere hil zen 1918ko apirilean. Bere anaia bezala, Christophe, gerlan zen. Suan izanki-eta, ari izan da handik, kartsuki, osasun aholku ematen, xehetasunetan sartuz, bere etxekoei bistan da baina ere herritar asko kontseilatuz. Gutun horiek eskuan ditugu ; hunkigarriak dira zinez ! Ikus haietarik bat 210. orrialdetik harat.

Gerla ondoan Christophe Dufau mediku jakintsua bilakatu zen gazterik, bertzeak bertze, aurpegi hondatuak antolatzen berezitua zen (ez zukeen lan eskasik gerla xirtxikatzaile hartarik landa !) eta Parisen zelarrik —han bukatu baitzituen bere ikasketak— operatzeko lokargailu anestesiko baten hobekuntza aurkitu zuen. Ikus 217. orrialdeko argazkia.

Baina mediku handi izateaz gainerat euskal musikazale handia ere zen denbora berean. GURE HERRIAko bilduma berezi batean, Jean Barbier ospetsuaren lanak gorai patzerakoan, Piarres Lafitte-k hunela dio 1975ean :

*« Jean Barbier apeza Christophe Dufau jaunarekin ari izan zen luzaz euskal kantu zahar biltzen eta GURE HERRIAN publikatzen, hitz eta musika. Berrehun bat uste dut bazituztela eskuraturik. Aita Donostia eta Azkueren itsasorat ixur-arazi zuten heiek ere beren ibaitxoia, asko kantore galtzetik begiratuz. »*

**1955-56 ikastaroa San Josep eskolan**



Coll. Duhau--Arana

JARRIRIK -1-	JARRIRIK -2-	XUTIK	GAINAN
	1 Kattin Belaunzaran (Garmendia) Maxelainea	1 Maritxu Bereau Amotz-Kamieta	
	2 Jeanine Guilçou Motxokoborda	2 Marie-Claire Balerdi (Garate) Pettaloinea	1 Germaine Harisgain (Bereau) Eskola
1 Aña Guilçou (Teltetchea) Motxokoborda	3 Maritxu Etcheverry Bixente-Baita	3 Maite Zamora (Janmart) Altziburua	2 Rosalie Belaunzaran (Tapia) Maxelainea
2 Philo.Etcheverry (Berhouet) Bixente-Baita	4 Graxi Darancette Ibarrun-Xanienea	4 Annie Balerdi (Serora Orthezen) Pettaloinea	3 Carmen Yanci (Lafourcade) Ganix Baita
3 Marguerite Darancette (Dokhelar) Xanienea	5 Jacqueline Irubetagoiena (Ollivon) Kapotenea	5 Benita Zamora (Chipy) Lohiakoborda	4 Louise Yanci (Mamein) Ganix Baita
4 Anita Irubetagoiena (Olaizola) Kapotenea	6 Françoise Yarçabal (Çuburu) Ibarrun	6 Laurence Yarçabal (Larroude) Sarroskia	5 Jeanine Bereau (Daguerre) Amotz-Kamieta
5 Beñat Zamora Altziburua	7 Marie-Jeanne Astigarraga (Manigau) Bidegurutzeta	7 Maite Mendy (Galliat) Etxetoa	6 Mayi Ariskorreta (Idelman) Uhartea
6 Agustin Astigarraga Bidegurutzeta	8 Miren Doyhenard (Menet) Ibarrun-Etxenika	8 Mayi Etcheverry (Hiribarren) Ehaltzetxeberria	7 Maite Yarçabal (Ourdanabia) Sarroskia
7 Henriette Laurencena Zuharreta	9 Maite Laurencena (Etchegaray) Zuharreta	9 Maite Doyhenard (Lamiscarre) Ibarrun-Etxenika	8 Henriette Berrouet Hirioingoborda
8 Lucien Laurencena Zuharreta	10 Marie-France Balerdi (Mendy) Pettaloinea	10 Maite Lacroix (Hiriart) Kikerrenea	9 Maite Iturria (Astigarraga) Ehaltzea
9 Pierrette Balerdi (Lassaga) Pettaloinea	11 Marie-Hélène Arana (Duhau) Mariatorenea	11 Thérèse Etcheverry (Darguy) Betrienea	10 Marie-Rose Larzabal (Etcheverria)
	12 Carmen Valencia (Aramendy) Bastidagerrekoborda	12 Jeanne Etchegaray (Harisgain) Hiriberrikoborda	

OHARRAK, H.D. 2006. Dominique Dufau zendu zen urtekoa da argazki hau. 245. orrialdeko emazte argazkiaren ondotik, hau ere sartu dugu, gizon argazki zenbaiten artean, emazte argazki batzuek ere bilduma huntan izan behar zuketelakoan : euskaldun emaztea hain gora zeukan D. Dufau-rengatik ere ! Parentesi artean ezkontzaz hartu izena, bildu ahal izan direnak bederen.

OHARRA, H.D. 2006.

**DUFAU deitura nundik heldu ote den :**

Bi iturburuetarik etor daiteke :

1°) FAU hitzetik eta hunek FAGO(A) edo PAGO(A) erran nahi du okzitanieraz (*le hêtre*, frantsesez); eta DU horrek, « nungoa » erran nahi luke kasu huntan. Holaxe ezagunak dira : DUFAU, DUFFAU, eta abar.

2°) DUFAU-k, ordea, izan dezake bertze iturburu bat : FAURE hitzetik abiatuz. Gure lehen auzo gaskoinek, euskaldunek bezala, hizkiak eta berdin silabak ere « jaten » baitituzte batzuetan eta FAURE horrek gal dezake azkeneko 'RE' hori eta orduan FAU laburtua gelditzen da. Gaskoinek, « AU » hori diptongatzen dute euskaraz bezalatsu. FAU(RE) hitz hunek (H)AROTZA erran nahi du, burdinkia lantzen duena eta, kasu huntan, DU-rekin hasten bada « harotzaren semea » erran nahi luke, hiztegien arabera.

Kasik ezinezkoa da, beraz, erratea, zoin iturburu duen deitura hunek : FAGOA ala HAROTZA. Dufau-rentzat erran dena Duhau-rentzat ere erran daiteke : gure inguruko zenbait hizkuntzatan « F » eta « H » nahasten baitira. Ondorioz, Dufau eta Duhau izen berak direla erran liteke, Dufau aise hedatuago baldin bada ere Duhau baino. Halere, Piarres Lafitte euskaltzale handiak, baina ere gaskoiaren ezagutza zuenak, Duhau-rentzat, « harotza » iturburuari lehentasuna ematen zion.

NDLR. H.D. 2006.

***L'origine du nom de DUFAU peut avoir deux sources :***

*1°) Il peut provenir de FAU et ce vocable indique le plus souvent « hêtre » en occitan-gascon et « DU » qui, dans ce cas, indiquerait « le lieu » de provenance.*

*2°) Il pourrait également provenir de « FAU(RE) » qui veut dire « forgeron » en occitan, la préposition « DU » indiquant cette fois « le fils » du forgeron.*

*Il est donc quasi impossible de choisir entre ces deux versions. Pour plus d'information on peut consulter le « Dictionnaire étymologique des noms de famille et des prénoms » des éditions Larousse ou encore le « Dictionnaire du béarnais et du gascon » de Simin Palay publié par le CNRS.*

*Tout ce qui est dit pour DUFAU peut être dit pour DUHAU. En effet, dans les langues qui nous entourent, il est assez courant de voir le « F » remplacé par l'« H » : LaFourcade et LaHourcade, LaFitte eta LaHitte, etc. Voir également en français « Fille » et « Hija » en espagnol —Fils et Hijo— Ferreur et Herrador —Feuille et Hoja—, etc. Toutefois en ce qui concerne le patronyme « Duhau », le savant Pierre Lafitte penchait nettement pour la version « fils du forgeron ».*

### Autres publications dans cette collection :

- Histoire générale du Pays Basque. Manex Goyhenetche. Elkarlanean, t. 1 (1998), t. 2 (1999), t. 3 (2001), t. 4 (2002), t. 5 (2005)
- Histoire du peuple basque. Jean-Louis Davant. Elkarlanean, 8<sup>e</sup> édition (2000)
- Noms de lieux et de personnes à Bayonne, Anglet et Biarritz au XVIII<sup>e</sup> siècle. Hector Iglesias. Elkarlanean (2000)
- L'histoire des pêcheurs basques au XVIII<sup>e</sup> siècle. Dominique Robin (2001)
- Kantuketan. L'univers du chant basque. Elkar (2002)
- Le mouvement culturel basque 1951-2001. Elkar, t. 1 (2002), t. 2 (2005)
- La maison basque de Paris - Pariseko Eskual Etxea (1952-2002). Argitxu Camus Etchecopar. Elkar (2003)
- Histoire d'Anglet. Manex Goyhenetche. Elkar (1997 ; nouvelle édition actualisée en 2003)
- Politique Linguistique. Jean-Baptiste *Battittu* Coyos. Elkar (2004)
- Être Basque à Bordeaux. Sous la direction de Pierre Trounday, Joseph Zabalo et Maurice Domercq. Elkar (2004)
- Trois siècles de vie en montagne basque : Ainhoa. Michel Duvert. Elkar (2004)
- Dans l'ombre des passeurs. Gisèle Lougarot. Elkar (2004)
- Joaldun et Kaskarot. Des carnivals en Pays Basque. Thierry Truffaut. Elkar (2005)
- La mémoire et l'instant. Les improvisations chantées du bertsulari basque. Denis Laborde. Elkar (2005).
- Dufau bi anaiak. Bildumagilea: Henri Duhau. Elkar (2007).
- Xiberotarra - Zuberara. Le dialecte basque souletin. Jean-Baptiste *Battittu* Coyos. Elkar (2007).

**H**enri Duhau-ren beste lan balios bat dugu hemen. Beti bezala, iragana etorkizunaren haurdun dela oroitarazten digu.

Dufau anaien lanak, beraz, euskaraz eta frantsesez. Dominique, notario, auzapez, Euskaltzaleen Biltzarreko diruzain... Christophe, medikua, euskal kantu eta musikan murgildua.


Biak euskaldunak eta euskaltzaleak. Historia aurreko notableak ? Baietz, erranen du gazte suhar baina ezjakinak. Lehenik irakur ezazue :

- senpertarra, oroimenez eta jakinminez, herriaren hatzetan ibiliko da ;
- historialaria loriatuko da xehetasun batzuekin, gaurkotzearen beharra luketen batzuk hauteman baditzake ere ;
- kristaua gogoetatuko da lehendanik galduez, irabaziak ere izan direla ahantzi gabe haatik ;
- elebitasunaz den bezainbatean, euskaltzaleak ikasiko du bide idekitzaile ausart eta eredugarririk izan dela beti Euskaltzaleen Biltzarreko kideetan ;
- abertzalea, perpaus huni ohartuko da, besteak beste : *«Bien que la dure loi de la force primant le droit et les conventions d'États dominateurs et géographiques n'aient pas placé notre Euskadi au rang des nations...»*

Eta susta gaitzala guziak geure bideetan !

2006-07-25. Piarres Aintziart

elkar



Liburuaren gibelego estalia

## **GEHIGARRIA / SUPPLÉMENT (2020)**

**“DUFAU BI ANAIK”**

**Oroitarriaren agertzea  
eta  
liburuaren aurkezpena Senperen**

**Liburua atera ondoan  
prentsan agertu ziren zenbait lerro  
eta bertze zenbait dokumentu eta argazki**

**Milesker guziri ! H.D.**



2008-02-03 : « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen.  
Hemen oroitarriaren agertzea : Andres Urrutia, euskaltzainburua ; Christine Bessonart,  
auzapeza ; Christine Sanchette Lannette, notarioa ; Piarres Aintziart, Euskaltzaleen  
Biltzarreko burua eta Henri Duhau liburuaren idazlea.

**“DOMINIQUE DUFAU  
1880-1956  
SENPEREKO AUZAPEZ ETA  
NOTARIO EUSKALTZALEARI”**

© D.R.

## « DUFAU BI ANAIK »

liburuaren aurkezpena Senperen (2008-02-03)

(*Henri Duhau*)

Andere Auzapeza eta hautetsi guziak,  
Dufautarren ahaide edo ondokoak,  
Euskaltzainburu Jauna,  
Jaun Andere Euskaltzale eta Adiskideak !

Huna beraz berriz ere nun garen bilduak, Senperen, duela doi-doia hilabete pasa, hola hola elgarretaratuak baikinen jadanik Gratien Adema-Zaldubi omentzeko orhoitgarria geldituko den ospakizun batean.

Jadanik errana izan zaizuen bezala omenaldi hau joan den ekainean egitekoa zen, hala hitzartzen ari ginen, baina denek dakikezuen bezala, maiatzeko uholdeen ondorio latzek gure asmoak gerorako utzarazi zizkiguten. Egia erran, ez da hain gaizki gertatzen, historiari behatuz gero: alabaina, Adema-Zaldubi, Dufautarrak baino lehenagokoa baita, belanaldi bat lehenagokoa xuxen errateko eta Dufau, Ademaren ondotik ospatuz geroz, gauzak, azken batean, hobeki baizik ez ditugu ikusiko.

Huna nola gertatu zen liburu hunen hastapena. 2005garreneko udazkena zen, Piarres Charritton-ek jakinarazi zidalarik euskaltzainburua, Andres Urrutia, ofizioz notario dena, ari zela preseski notario euskaltzaleen lanak biltzen eta xehetasun bat eskuratu nahi zuela, hau da: « **Dominique Dufau-k parte hartu ote du, Eskualduna kazetan, bi gerlen artean, Legeen xokoa deitu zuten sail balios hartan?** »

Eta horra nola hasi zen guzia Andres Urrutiaren galdera horrekin. Gertatu da, xehetasun horri ihardetsi ondoan bilketa-bilakuntza lanak segitu ditugula, zeren-eta, aspaldian, axaletik ezagutzen nituen Dufau-tarrak barnaxagotik aztertze gogoarekin bainengoen aspaldian. Alabaina gauza jakina da, jendeak gogoan dituela buruzagiek egin pettoak, egin dituzketen idazki eta gisa hortako lan ederrak herrautsen azpian ahantziak direlarik...

Euskaltzaleek DUFAU bat ikusten dute paperetan, baina gehienetan, izen horren giblean bi anai badaudela ere jakin gabe. Egia erran biak euskaltzale eta musikazaleak izanik, barnaxago joan behar da bereizketa baten egiteko. Horra zertako erabaki dugun biak batean omentzea: gauzak hurbildik ikasi nahi dituenak, oraindanik izanen du beraz eskumenean liburu bat, bataren eta bertzearen biziko lan eta urrats larrienak bederen biltzen dituen.

Hiru anaia-arreba ditugu Dufau-tarrak. Lehen biak Mexican Zacatecas hirian sortuak: Dominique, zaharrena, 1880an eta Alexandrine 1881ean. Gazteena, Christophe, Senperen sortuko da 1888an « Gixonkienean » ordukotz hunat etorriak baitziren itsasoz haindian hein bat aberasturik. Hirurek ez dute haurrik izanen baina hirurek zerbait utziko diote Senpereri, utziko Euskal Herriari.

### **Christophe DUFAU (1888-1922)**

Has gaitzen gazteenarekin, Christophe, gazte-gazterik zendu baitzen hau 34 urtetan, 1922an. Lehen ikasketak Larresoroko eskola famatu hortan eginak zituen, gero Bordelen eta Parisen. Hamalauetako gerla hasi zelarik medikuntza ikasketak bukatzen ari zen eta gerla denbora guzia eginen du beti mediku gisa, gehienetan kolpatuen artatzen, arriskurik handien erdian egoten baitzen, zaurituen sokorritzea bere bizia baino lehenago ezartzen zuela!

Jokabide goresgarri horrek anitz Zitazione edo Aipamen hartze zituzkeen, onartu izan balitu, zeren berari zihoazkion ohorezko ageriak, bere azpiko zituen *brancandiers* edo andariei pasatzen baitzizkien !!! Baina egun batez Jeneral handiak, *Général de Corps d'Armée* delakoak, berak nahi ala ez, ohoratu zuen eta sariztatu Gerlako Gurutze bereziaz!

Ezen ez da frantses militarista batere gure Christophe: liburu huntan publikatzen dugu hark gerlatik igorri gutun bat, zeinetan erraten baitie bere etxeko amari eta arrebari, xantza dutela Euskal Herrian izanik eta ezin ez gerla inguruetan, ezen, batzuetan, alemanak baino makurrago dabiltzala soldado frantsesak jende zibilekin ! Ez dakigu holako solas gogorra nola iragan zen armadan zegoen zentsurarekin.

Christophe, suan izanki-eta, ari izan da handik, hunat, osasun aholku ematen, erremedio egiteko xehetasunetan sartuz, bere etxekoei bistan da baina ere herritar asko kontseilatuz. Gutun horiek eskuan ditugu : hunkigarriak dira zinez !

Gerla ondoan bere mediku jakintza hobetzeko Pariserat joan zen eta han, 1920a inguruan, aurkitu zuen, lagun batzuekin, operatzeko lokargailu edo *anestesiatzeko* molde berri bat. Sistema hau « *le masque d'Ombredane* » deitzen da eta lortu hobekuntza hori baliatuko da Frantzian dozena bat urtez bederen... Mediku guziak jakintsuak dirateke baina Christophe teknika berrien asmatzailea eta aurkitzailea ere izan da (*inventeur*). Azkenik, aurpegi hondatuak antolatzen berezitua zen : ez zukeen lan eskasik gerla xirtzikatzaile hartarik landa !

Euskal Herrirat itzuli zen gero medikuntza lanari lotzeko baina gerlan harrapatu eritasun baten ondorioz bi urteren buruko hil zen. Ez zen alfer egon, alta, bi urte horietan! Jean Barbier Senpereko orduko gure erretor ezin ahantzizkoarekin kantu xahar biltzen eta lantzen aritu baitzen gaitzeko karrarekin. Euskal musikazale jakintsua zen Christophe eta Gure Herria aldizkaria sortuko delarik, haste-hastetik, musikaren ardura edo erantzukizun guzia bere gain hartu zuen, hain famatua bilakatuko den agerkeri hortan.

Aipatzea merezi du : Christophe harmonisatu zuen lehen kantua izan zela, hain xuxen, « **Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun** » Adema-Zaldubi bere herritarraren himno famatua... Jakizue, bada, ez zirela batere adiskide, bi familia handi horiek... Alta Christophe-k jakin du horien guzien gainetik iragaiten eta merezi zuen ohorea ematen Zaldubi zaharraren obrari.

Christophe hil zelarik, Gure Herria aldizkariak sekulako laudorioak egin zizkion. Laudorio horiek baino hunkigariagorik ez da Gure Herria aldizkari sorta guzian. Goresmen horietan bada Monseigneur Jean Saint-Pierre milafrangar apezpiku euskaldun eta euskaltzale handiaren artikulua eta, gure senpeter gaztea, girstino jarraikia zela jakinarazten digu, bertze hainbertze dohainen artetik...

Orain, Senperen badugu «*Saint-Christophe*» lizeoa. Huna zergatik dakarren izen hori. 1960eko hamarkada hondarrean, Arnaud Borotra erretorak eskaturik, Alexandrine Soubelet Dufau-k, Dominique eta Christophen arrebak, hiruetarik azkenik zenduko denak, lur peza eder bat urrik utzi zion parropiari laborari gazteen ikastetxe bat eraikitzeko. Lur hori parropiari uztean Alexandrinek ezarri zuen baldintza bakarra izan zen : eskola horrek ekar zezala « Christophe » izena, hain gazterik galdu zuten anaia maitearen orhoitzapenez.

Ikastetxe hori eraiki zen. Zenbait urte geroxago ikastetxea zabaldu dute, bertze lur puska bat erosirik, bertze norbaiti. Emaitza ezin aski goretzizkoa beraz, zeren-eta ez baitzen zabaltzerik ez bertzerik egiten ahalko, oinarrian ez balitz izan Alexandrine Soubelet-Dufauren egitea.

### **Dominique Dufau (1880-1956)**

Lehen ikasketak Larresoron eginak zituen bere anaiak baino lehentxago eta hor bilduko du Euskal Herriaren eta euskaren alderako atxikimendu bat beti eta hobeki egin beharrez landuko duena bere bizi guzian.

1911n Senpereko notario da 31 urtetan. Gero Gerla Handia deitu hura egin beharko du, bere anaiak bezala. Handik igorri gutunen arabera —baditugu hauetarik andana bat eskuan— idazki lanetan iragan duke denborarik gehiena. Horrek ez baitu erran nahi irrisku guzietarik gerizan.

Gerla ondoan, 1919an, Senpereko auzapez izendatu zuten eta kargu hortan egonen da 16 urtez.

1931 an ezkondu zen Senpereko Angèle Laffitte-rekin. Gauza jakina da, Laffitte-tarren etxe hori, «Barberarenea», Senpereko karrikan, Baionako bidean, «gorrien gotor lekua» izana dela luzaz. Senpere Iraultza Handiaren alde jarri zenetik, gaitzeko indar eta eragina izan baitute «gorriek» gure herrian. Herriko Etxea bera, 1876an eraikia, arras berezia da eta bere egiturak III. Errepublika orhoitarazten digu garbiki. Herriaren antolakuntzan lan handiak egin dituzte, haatik, gorri horiek: dakigunaren arabera, karrika nagusiko bidea zabalduz, Baionako eta Donibaneko bide berriak eginez, eskolak irekiz eta abar.

Horiek hola, badirudi Dominique Dufau politikari «xuria», «gorri» batekin ezkondurik, bi alderdien arteko harremanak doi bat jabaldu zirela Senperen. Hori da beharbada Dominique Dufau-ren lehen ekarpena, bertzela ere denekin elaire izan nahi zuen gizon jakintsua bezain gizon goxoa baitzen eta hori Louis Dassance-k egiaztatzen digu, 1956an, Dominique hil zen urteko Eskualtzaleen Biltzarreko mintzaldian.

Huna gorrien eta xurien arteko liskarrez, xehetasun adierazgarri bat. Angèle Laffitte, Dufauren emaztea izanen dena, bere ahizpa Anitarekin izatu ziren biak, osaba apez baten ehorzketetan gorritz bezi, gainetik behereraino ! Ez zituztela hauek

gordetzekoak beren iritzi politikoak! Zenbait urte geroago egin portrait batean, haatik, ikusazue hor, Angèle; ez da gehiago gorritz bezi eta hautemazue zer daraman ageri-agerian eta ikusiko dukezue bilakaera, bistan da nori esker...

Baina Angèle eta Anita ez ziren salbuespen batzuk. Gure herrian, bertze herri askotan baino gehiago, apezten etsai ziren “gorri” batzuk gaitzeko indarrean ziren.

Bai, hala da, Senpere herriaren berezitasunetarik bat da, 1789an, frantses Iraultza Handiaren alde jartze hura, bere inguruko herriak, Sara, Azkaine, Ainhoa eta bertze, Lege Zaharrari leial zegozkolarik. Eta ez ziren epelki jokatu senpertarrak ! Notableak aitzindari, Loustau Senpereko jaunaren lurren kudeiatzailea, Duronea, notarioa, Marithurri, herriko erretora bera eta hau Frantzia guziko apezetan lehenetarik izanen da Iraultzaren alde jarriko dena, eta bikarioek ere segitu zuten mugimendua !

Eta Iraultza horrek piztu suak iraun zuen; duela 60bat urte oraino itxindi eta pindar batzuk bizirik zeuden : alde batetik Bernard Elissetche irakasle eta Errepublikazalea eta bertetik Dominique Dufau, Senpereko bi jakintsu handienak beraz, eztabaidan ari baitziren : lehena, Senperetik Errepublikaren alde egin zuen bidea gorensten eta bertzea bide horren gehiegikeriak salatzen! Horien lekukoak badira oraino gaur egun gure artean...

Erants dezagun haatik ez zirela hauek, ez Dufau, ez Elissetche, alderdikari amorratu, herratsu, haietarik. Biak ere, bere hartan tinko zeuden, baina elkar handizki errespetatuz. Jendetasun horren lekuko, ikus Dufauen artikulua beti ontsa neurtuak eta orraztatuak batetik eta bertetik irakur dezakezue ere Bernard Elissetche-n artikulua bikain bat: «*Le gouvernement des Etxeko Jaun à Saint-Pée-sur-Nivelle*», 1954an agertua GURE HERRIA aldizkarian.

Baina gauden Dominique Dufarekin. 1926an sartu zen Euskaltzaleen Biltzarrean eta lau urte geroago elkarre handi hortako diruzain ezariko dute eta kargu hori atxikiko du 20 bat urtez, Louis Dassance langile handia elkarburu delarik eta denek badakigu zer sail aipagarria eraman izan den denboraldi hortan euskararen alde.

Dufau-k Gure Herrian argitaratu artikulua baten bidez, ikasten dugu bazirela Senperen, bi gerlen artean, hamahiru kofradia. Egun, otsailaren hirua, hain xuxen, San Blas edo San Bladi dugu laborarien patroinaren besta eta Dufau-k egin lehen artikulua Amotzeko San Blas kofradiaz egin lana da! Badira hola gertakari batzuk bitxiak, durduzaten zaituztenak...

Dena den, Kofradia horiek arta handirekin kudeatuak ziren eta haien *statuts* edo araudiak notario bidez finkatuak. 1927an, haietarik bat, «*Mutuelle Assurances St Pierre*» deitzen zena. Olha eta Olhaso auzotegietako laborariak elgartzten zituen.

Kofradia horren paperak berregin behar zirela-eta, huna nun Dominique Dufau notarioak bi hizkuntzetan paratzen dituen delako araudiak, frantseseko izendapenaren ondoan, “**Jondoni Petri Lagungarria**” deiturik euskaraz, eta hizkuntza bakoitzari garrantzia ber-bera emanik!!! Hiru urte geroago, gauza bera errepikatu zuen, Urguriko bertze kofradia batentzat, hau “**Jondoni Joani Lagungarria**” deitzen zuela.

Alabaina badakikezue notario batek Frantzian ez duela, bere lan ofizialean, euskaraz idazteko eskubiderik; etxe izenak, leku izenak eta holakoak bai, bistan dena, baina legezko, dretxozko baliadun idazkirik ez. Hor da beraz Dominique Dufauen merezimendua agertzen, debeku horren gaintetik iragan baita, fitxategi inmobiliarioan publikatze beharrik ez duten kontratuentzat bederen. **Argi geldi bedi, euskara desagertarazi nahi duen legearen gaintetik egin lan ofiziala dela hau.** Kontratu elebidun hauekin, Dufau-k, bere lanbidearen eta karguen gaitzeko irriskua hartu zuen, eta hori azpimarratu nahi dugu... Kontratu elebidun horiek ematen diote, bistan dena, liburuari ere bere berezitasuna.

Ez dugu bada itzalean utziko 1937an Dominique Dufau-k hartu zuen bide bat. Espainiako gerla zibil izigarri haren denboran Hegoaldetik etorri ziren euskal iheslariak badakigu zer gorabeherak sortu zituzten Iparraldean. Dufau-k Ybarnegaray famatua ezagutua zuen Hamalauko gerlan eta hori aipatzen digu sutik igorri gutun batean. Baina, kasu huntan, Ybarnegaray puxantarengandik urrundu zen gure Dufau eta iheslarien laguntzeko talde batean sartu, elkarre hortako araudiak Dufau-k idatzi zituen, denen buru zutelarik Henri-Jean Houbaut Baionako Jaun Apezpikua bera.

Liburu hau inprimatua zen Daniel Landart adiskideak jakinarazi digularik Dufau-k bi antzerki lan ere bazituela idatziak, bata: «Etxeko anderea», bertzea «Gan etorri bat Senpererat». Antzerki horietarik bat bederen taulagainean antzetzu ere zuten Senpereko gazteek 1954an.

Berriki eskuratu dugu ere hiztegi bat hasia zuena eta “**P**” hizkiraino eramana ; Lhande-Lafitten hiztegi euskara-frantsesa, bihurtzen ari zuen frantsesa-euskararat. Hiztegi hori aztertu beharko dugu Dufau-ren ekarpenak agertuko baitzaizkigu hor.

Errana da Hamalaueko gerlak handizki frantsestu gintuela. Alta Senperen, Dufau eta Barbier-i esker gerlari ohien araudiak euskara hutsean idatzi zituzten eta hein bat garbiki. Ikus hori erakusketan, liburua ateratuz gero eskuratua baitugu.

Ez dezakegu deus erran Dufau Senpereko hautetsi edo herri gizonaz, ez baita ahantzi behar Euskaltzaleen Biltzarrean garela hemen eta ez politika alorrean. Gainerat, Senperen, bazterrak frango minbera dauzkagu eta hauteskunde aroan sartuak gara bertzalde. Ez dugu nehokako ezatabaidarik piztu nahi. Dominique Dufau-ren heriotzearen ehungarren urtemuga ospatuko dutenean, giro politikoa jabaldua izanen dateke eta bertze gorabeheraño batzuen argitzeko parada izanen dukete orduan.

Gisa guziz, gizon talendu anitzekoa genuen Dufau: artikulua eta antzerki idazle, historiazale, musikari eta marrazkilari ona ere bai, hori ere erakusketako irudietan ikus dezakezuen bezala.

Orain zer da gertakari hunen mezua? Bat bederen ikusten dut. Beti idazle hoberen-hoberenak ditugula aho-mihi eta lumapean. Dominique Dufau ez du nehok ikertu bere euskarazko lanak ez zirelako omen goi-goi mailakoak. Alta, egun, ikusten dugu balio zuela haien barnatik miazteak: zinezko jakingariak baitzeuden hor lotan.

Beraz bila dezagun, bilatzen duenak aurkitzen duela ere errana bada, eta hala gertatu zait afera huntan berriki zendu zaigun André Harişgain Gaxintoenekoak bere kontratu elebiduna eskurat eman zidalarik. Bilatu paperetan bereziki, historia aztertu nahi bada segurik.

Bururatzeko erran dezagun liburu honek ez zuela holako arrakastarik izanen Andres Urrutia jaunak ez balu gain-gainetik sustatu eta, haren bidez, “**Zuzenbidearen Euskal Akademia**”-tik ez balute handizki diruztatu. Erakunde hunen beraren aldizkarian ere ezarri duzu, zuk Andres, 50 orrialdeko artikulua luze bat eta Euskal Herri guzian dretxo lantzen dutenek jakinen dute Dominique Dufau-k egin duen lan eredugarria. Eskerrak beraz, zuri, bihotz bihotzez, Euskaltzainburu Jauna.

Eskerrak ere Euskaltzaleen Biltzarrari, bai eta Senpereko Herriko Etxeari, ahantzi gabe bertzalde laguntzaile izan ditugun guziak eta berezikiago: Jean Ithourria eta Pierre Carricaburu. Dokumentuen ekarleak ere eskertzen ditut, haiek gabe ez baitzen deusik egiten ahalko: Pomadère-Bergouignan eta Otheguy-Lévy familiak, Christine Sanchette-Lannette andere notarioa, eta oraintxe aipatzen nuen Gaxintoreneko familia.

Orain milesker deneri eta liburuaren irakurketa gozagarri izan dakizuela!

Henri Duhau.



2008-02-03- « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen : ezkerretik eskuinerat : Christine Sanchette-Lannette Senpereko notarioa, Piarres Ainciart Euskaltzaleen Biltzarreko burua, Christine Bessonart Senpereko auzapezea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Henri Duhau.

© D.R.

*03/02/2008. Présentation du livre "Dufau bi anaiak" à Saint-Pée : de gauche à droite : Christine Sanchette-Lannette notaire à Saint-Pée, Piarres Ainciart président d'Euskaltzaleen Biltzarra, Christine Bessonart maire de Saint-Pée, Andres Urrutia, président d'Euskaltzaindia et Henri Duhau.*



2008-02-03. « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen. Entzuleak.  
03/02/2008. *Présentation du livre "Dufau bi anaiak" à Saint-Pée. Le public.*

© D.R.



2008-02-03. « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen. Entzuleak.  
03/02/2008. *Présentation du livre “Dufau bi anaiak” à Saint-Pée. Le public.*

© D.R.



2008-02-03. « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen. Erakusketa.  
03/02/2008. *Présentation du livre “Dufau bi anaiak” à Saint-Pée. L’Exposition.*

© D.R.



2008-02-03. « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen. Erakusketa.  
*03/02/2008. Présentation du livre "Dufau bi anaiak" à Saint-Pée. L'Exposition*  
© D.R.



2008-02-03. « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen.  
03/02/2008. *Présentation du livre "Dufau bi anaiak" à Saint-Pée.*

© D.R.



2008-02-03. « Dufau bi anaiak » liburuaren aurkezpena Senperen.  
*03/02/2008. Présentation du livre "Dufau bi anaiak" à Saint-Pée.*

Manex Pagola eta Martxel Brave bazkaria alaitzen

© D.R.




Dominique DUFAU (Coll. Otheguy-Lévy) (Eizaguirre bere lagunak egina)

D. DUFAU, AGUIRRE, SAINT-PIERRE



Andres Urrutiaren eskutik.  
Dominique Dufau José Antonio de Aguirre lehendakariaren eskuinean.



# PETIT DICTIONNAIRE

1

Petit Dictionnaire français-Basque des mots labourdins et communs les plus usités.


-( D'après le dictionnaire basque-Français du Révérend père Lhande ) -

oooooooooooo

- A -

- |  |                                      |
|--|--------------------------------------|
| Abbé-(laïc)- abada - baldarnapez         | Auge - aska                          |
| Avance - abantzu                         | Assez - aski                         |
| Adieux-(prodiguer les)- adikatu          | Afflictio -                          |
| Adieux-(faiseur d') - adikari            | Agréable - atsegingarri              |
| Age -adin                                | Attrappe - atzeman                   |
| Age -(du même)- adinkide                 | Ai -( j' )- badut                    |
| Ami - adixkide                           | Aurons-( nous)- badugu -( voir gram- |
| Accident - agitura                       | -maire d' Ithurry, pag. 146 -        |
| Aisance - aisea                          | 202-337-348                          |
| Aisément -aiseki                         | A -(il)-badu                         |
| Aise - aisetasun                         | Affirmation - baimendu ou balezkoa   |
| Aveu - aithorra ou aithormen             | Absolument - baitezpada              |
| Avouer - aithortu                        | Absolument nécessaire - baitezpada-  |
| Avance - aintzin                         | -koa                                 |
| Avance -( à l' )- aintzinetik            | Assemblée, communauté- baldarra ou   |
| Autrefois, il y a quelque temps-aintzin- | baldarna                             |
| -nortan                                  |                                      |
| Achever -Akabatu ou azkendu              | Avare - begirakorra                  |
| Aiguillonner - akulatu                   | Accueil - begitartea ou ongi-ethorri |
| Aube - alba -(aube du jour )-            | Affable - begitartetsu               |
| Approcher -(s')-alderatu                 | Abaissement-beheramendu              |
| Attache, lien - amarradura               | Arcade - bekaina                     |
| Adresse, astuce - amarru                 | Appréhension - beldurkunde           |
| Astuce -(par )- amarruz                  | Agenouiller -(s')-belhaunika ou      |
| Amodio - amodio                          | belhaunikatu                         |
| Aimant - amodiotsu                       | Aussitôt - berehala                  |
| Amoureuement - amodiotsuki               | Amol ir - beratze ou beraxtu         |
| Amour -(par)- amodioz                    | Approprier - beretu ou beretze       |
| Aumone - amoina                          | Aune - berga                         |
| Ancre - Angura                           | Autre - bertze                       |
| Ancre -( jet de l' )- anguratu           | Autre -( d' )- part - bertzalde      |
| Angoule ou pibale - angula               | Autre-( à l' )-côté-bertzalderat     |
| Arbusier - Ania-mania                    | Autre-(une) fois - bertzaldi         |
| Arrangement - antolamendu                | Autrefois-( jusqu' ) bertzaldiraino  |
| Apaiser - apazegatu                      | Autre-(une) fois-bertzaldi-batez     |
| Apprenti - aperendiza                    | Autrement -bertzela                  |
| Abaissement - apalmenu                   | Autrement différent -bertzelakoa     |
| Autrefois - araintzina                   | Autrement - bertzenaz -Ex.bertze-    |
| Auparavant - araintzinako                | -naz ditake, berenaz ez daike        |
| Aieul - arbaso                           | Autrui -(à)-bertzerena               |
| Aieux - arbasoak                         | Autrui-(chez)-bertzetan              |
| Approche du jour -argi-alde              | Autre-(en)-temps -bertzorduz         |
| Aurore - argihaste                       | Autant que - bezein ou bezenbat      |
| Aube - argitirrinta                      | Autant-(pour )-que-bezenbatetan      |
| Alléger - arindu                         | Aigreur d'estomac-bihotztarra        |
| Arrière !- arribira !                    | Assemblée (collection)-bilduma       |
| Arranger - arrimatu                      | Assemblée- bilkura                   |
| Amplement - aseki                        | Alerte - zalua                       |
| Abord (d'), par exemple - behintzat      | Allegresse - bozkariora              |

Eta badira bertze 50 orrialde... H.D.



Eta badira hor 75 orrialde oraino ikertzekoak... H.D.

## Christophe DUFAU



« Adoré des soldats, hautement estimé de ses chefs, il se conduisait en toutes circonstances avec une bravoure dont témoignerait de multiples citations, s'il les avait acceptées. Mais il préférait faire décorer ses infirmiers et ses brancardiers. Un jour, pourtant, son général de brigade le fit citer d'office à l'Ordre du Corps d'armée et lui offrit personnellement le délicat hommage d'une Croix de guerre en vermeil. »


Voir l'hommage de J. Ribeton, page 225.

Christophe DUFAUk gerlan merzitu ohorezko medaila. Coll. Lévy Otheguy.



# iNBiDO

## IRAGAN MENDE HORTAKO BI SENPERTAR EUSKALZALE



Pazko biharamunean, Idazleen Biltzarra zela-eta, aurkeztua izan da liburu mamitsu bat, **Henri Duhau** senpertarrak idatzia, "**Dufau bi anaiak**". Liburu eder eta guziz baliagarria, **Andres Urrutia** euskaltzainburuak aintzin-solas argi batean azpimarratzen duen bezala.

Liburu balios horrek oroitarazten dauku nor izan ziren Dufau anaiak, bat medikua eta bestea notarioa, euskalzale suhar eta jarraikiak. Argitan ezarriz bestalde heien idazlan aipagarrienak, euskaraz ala frantsesez.

Lan horren abiapuntua, Euskaltzaleen Biltzarraren bilkura bat Baionan, duela urte bat eta erdi nunbait han, **Piarres Charriton** hazpandar euskaltzainak egun hartan erranik bera ere ofizioz notarioa den Andres Urrutia bizkaitarrak xekatzen zituela argitasun batzu **Dominique Dufau** notario euskalzaleaz.

### DENEN ADIXKIDE

Dominique Dufau Mexikon sortu zen 1880-an. Senperen plantatu notario 1911-n. Senpereko auzapez kargua - auzapez edo "baldarnapez" denboran erraiten zen bezala - atxiki zuen hamasei urtez (1919-1935). Euskaltzaleen Biltzarraren buruzagietarik izan zen, diruzaingoa segurtatuz. Hil zenean, 1956-an, **Louis Dassance** eikarteburuak goretsi zuen holaxe : "Ororen adixkide nahi zen eta orok maite zuten, hain zen izpiritu argi eta esku zabalekoa". Euskaltzain urgazle ere izendatua izan zen. Haren lanak, dela lehengo kofradiez edo aspaldiko ohidura batzuek, ala berdin beste zernahitaz, guziz interesgarriak dira eta orai agertu liburuan daude bildurik, altxor bat ez dena segur nola nahikoa. Gauza bat munta handikoa, bere notario lanetan euskara ezartzen zuela frantsesaren hein berean, elebitasunari bidea zabal-zabala idekiz.

### KANTU XAHAR BILTZEN

Beste anaia, **Christophe Dufau**, ofizioz medikua, 1888-an sortu zen eta arras gazterik hil, 1922-an, gerlan bildua zuen eritasun tzar baten ondorioz. Ezagutua da euskalzale munduan Jean Barbier apezarekin gaitzeko ikerketak egin baitzituen kantu xahar ainitzen biltzen eta gero "**Gure Herria**" aldizkarian kantu heien agertarazteko, bakoitxarentzat bai hitzak eta bai musika. Denetarat berrehun bat kantu segurik. Urte askoz agertu ziren hola kantu asko eta asko, Christophe Dufau bera zendu-eta ere oraino. 1921-an zabaldua zuen dei bat, aipu dugun liburuan kausitzen dena, jendearen laguntza eskatuz kantu xahar bilketa horri buruz. Ohartua zen ere frangotan kantu berarentzat deberdintasun batzu bazirela herri batetik besterat eta aldi bat baino gehiago lehiatu da finkatzerat zoin nolakoa ote zen lehen-lehenik moldatua izana... Liburuak badauzka ere argazki batzu untsa hunkigarriak, batzu ez izanik ere kalitate hoberekoak, denbora hetan ez baitziren oraiko errextasunak, baina Dufau anaian urte heietako lekuko baliosak zernahi gisaz. Goresmen beroenak **Henri Duhau** adixkideari holako lana hoin ederki plazaraturik.



Henri Duhau bere liburuaren aurkezle


**Muslaría**

**SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE** Henri Duhau s'est passionné pour les écrits et la vie des deux frères Dominique et Christophe Dufau, érudits locaux

## Les frères Dufau senpertar de renom

Lorsqu'en 2005, Andres Urrutia, président de l'Académie de langue basque, s'est intéressé aux écrits de Maître Dominique Dufau, ancien notaire senpertar basquais décédé en 1956 (on va en célébrer le 50<sup>e</sup> anniversaire), Henri Duhau qui a déjà écrit 5 ouvrages sur l'histoire du pays basque, s'est plongé dans la biographie de ce notable qui figurait sur les photos en queue-de-pie et chapeau haut de forme. Possédant toute la collection de «Gure Herria, Eusko jakintza, Gernika et Agur» et par la suite la correspondance de guerre des deux frères, Henri Duhau s'est émerveillé au fur et à mesure de ses découvertes. Il n'a pas voulu séparer la vie des deux frères tant leurs destinées se complétaient, et tant celle de Christophe a été douloureusement abrégée en raison d'une maladie contractée durant la grande guerre. Médecin valeureux dans les tranchées, il s'y est conduit en héros en refusant les récompenses et à son retour, s'est dévoué auprès de ses patients tout en écrivant dans Gure Herria fondé à Saint-Pée.

Un premier essai de la vie des deux frères était destiné aux senpertars, puisqu'il relatait l'origine, les anecdotes, coutumes, maisons de « St Pée d'Ibarren » devenu St Pée sur Nivelle illustrées par des photos du début du siècle dernier, lorsque la découverte d'un acte notarié rédigé en



Henri Duhau

PHOTO C.C.-R

bilingue : basque, français, a changé la donne. D'autres actes notariés du même auteur, retrouvés à l'étude notariale et reproduits dans le deuxième jet, ont donné à cet ouvrage, une valeur historique et très importante pour St Pée. D'autant qu'Henri Duhau, doit présenter son ouvrage devant les représentants de l'Académie Basque de Droit à Bilbao. Ce deuxième livre est juste sorti pour le biltzar de Sare.

Dominique Dufau fut notaire à St Pée durant 30 ans et maire pendant 16 ans au sortir de la grande guerre. En épousant Angèle Laffitte, « une rouge » (anticléricale),

lui, un fervent catholique, il réconcilia les 2 adversaires et amena un début de tolérance. Sa sœur Alexandrine, fit don d'un terrain au futur lycée agricole qui devrait s'appeler « Lycée Christophe Dufau » et non St Christophe, même si la vie de ce dernier s'y apparentait.

C'est avec émotion que toute une génération lit ce livre, y retrouvant tout ce qu'ils avaient entendu dans leur enfance et qui sera le témoin de toute une époque. Actuellement Henri Duhau s'attelle à reconstituer l'œuvre de Gratién Adema « Zaldubi » 1828-1907 dont on va célébrer le centenaire de sa disparition.

• C.Carlier-Roth

# Les mémoires réveillées

*Saint-Pée-sur-Nivelle. Les Frères Dufau racontés par Henri Duhau.*

Catherine Marchand

**D**e nombreux Senpertars se souviennent de ces deux frères Dominique et Christophe Dufau. Le premier a été notaire et maire de Saint-Pée-sur-Nivelle entre 1911 et 1941, le second médecin et inventeur d'un procédé améliorant l'anesthésie « Le Masque d'Ombredane », invention utilisée jusqu'en 1935. Les frères Dufau étaient également des mélomanes passionnés par leur terre, Euskadi. C'est toute leur histoire et celle de la vie du village que l'on découvre au fil des pages du livre « Dufau, Bi Anaiak » écrit par Henri Duhau, féru de l'histoire d'Euskal Herria. Comme toutes les histoires, celle-ci est née de rencontres et de recherches. Henri Duhau présente son ouvrage.

**LSPB : Comment est né ce livre ?**

**Henri Duhau :** Tout a commencé en octobre 2005. J'ai alors appris que le président d'Euskaltzaindia et notaire de profession faisait des recherches sur les notaires du Pays basque, dont Maître Dominique Dufau, notaire à Saint-Pée-sur-Nivelle de 1911 à 1941 et parallèlement maire de Saint-Pée de 1919 à 1935. J'ai accepté de travailler sur ce sujet, tout en liant l'histoire des deux frères Dominique et Christophe. J'ai rencontré de nombreux Senpertars, dont certains m'ont confié des documents et des photos illustrant ce recueil de textes écrits par Dominique Dufau. Ce sont des histoires


vraies du village comme la vieille confrérie d'Amotz, des arrêtés municipaux, des règlements forestiers, les origines d'Ibarron en passant par le bourg et Amotz, les légendes, de vieux textes datant de la Révolution...

**LSPB : Qui étaient les frères Dufau Dominique et Christophe ?**

**Henri Duhau :** La fratrie était composée de trois enfants : Dominique l'aîné (1880-1956), Alexandrine la seconde et Christophe (1888-1922) le benjamin. Celui-ci est décédé à l'âge de 34 ans. Dominique a marqué l'histoire du village durant plus de 30 ans dans son rôle de premier magistrat de la commune de Saint-Pée-sur-Nivelle et de notaire. Il a également été durant vingt ans trésorier de l'Euskalzaleen Biltzarra, la plus ancienne des associations basques. Chacun à sa manière a contribué à promouvoir les domaines historiques, littéraires et musicaux basques. Leur sœur Alexandrine, seule survivante, a fait don à la fin des années 1960 d'un terrain sur lequel a été construit un établissement agricole en hommage à son jeune frère. Ainsi, ont été édifiés le Collège Arretxea et le lycée professionnel « Saint Christophe ».

**LSPB : En quoi Dominique Dufau a-t-il été un précurseur ?**

**Henri Duhau :** Son cabinet notarial était à « Gixonkiena ». Dans ces lieux, Dominique Dufau a rédigé des actes officiels en basque et en français. L'un de ces actes, une copie originale, m'a été confié par André Harisgáin. Son père Jean avait été le



(LSPB/CATHERINE MARCHAND)

Une partie de l'histoire du village de Saint-Pée-sur-Nivelle est relatée à travers le livre d'Henri Duhau « Dufau, bi anaiak ».

dernier président de la Confrérie Saint-Pierre. C'est une découverte historique de part et d'autre de la frontière. Deux documents ont été rédigés l'un en 1927 pour « Mutuelle Assurance Saint-Pierre » et l'autre en 1930 par « Mutuelle Assurance Saint-Jean ». C'est avec la mémoire

de tous les Senpertars et avec le concours de Maître Sanchette Lanette que ce livre a vu le jour.

Actuellement, Henri Duhau prépare un nouvel ouvrage sur Gratien Adema « Zaldubi ». Un prêtre qui est à l'origine de nombreux chants d'église et profanes.

La Semaine du Pays Basque 21 Juin 2007.

VALLÉE DE LA NIVELLE

Sud Ouest  
Vendredi 1er février 2008

**SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE** Une pierre posée maison  
Barberaenea marquera la mémoire des frères et sœur Dufau

# Honorable famille



Dominique, Christophe et Alexandrine Dufau

PHOTOS DR

Lors du Biltzar de Sare, au printemps 2007, Henri Duhau a présenté son livre relatant la vie exemplaire des frères Dufau (lire Sud Ouest du 28 avril 2007). La municipalité devait célébrer le cinquantenaire de la mort de Dominique Dufau, avec la pose d'une pierre commémorative, quand les événements météorologiques en ont décidé autrement. C'est donc ce dimanche 3 février, à partir de 11 heures, qu'aura lieu la cérémonie, à la mairie (partie arrière), cérémonie ouverte à tout public.

Henri Duhau y présentera son livre « Dufau bi anaiak » ainsi qu'une collection de photos de la famille, d'une fête-dieu mémorable de 1922 avec le curé Jean-Baptiste Donetch, et d'autres clichés de l'époque des frères Dufau. Puis le Maire dévoilera la pierre sur la maison Barberaenea à l'entrée de l'ancien lieu d'habitation de Domi-

nique Dufau et de son épouse Angèle.

**Le notaire, le médecin et la sœur.** Dominique Dufau, qui figure sur les photos en queue-de-pie et chapeau haut de forme, fut notaire à Saint-Pée pendant 30 ans. On lui doit les actes écrits en basque et en français, retrouvés dans les archives avec l'aide de M<sup>me</sup> Sanquette-Lanette. Après la guerre 14-18, il fut également maire de la commune pendant 16 ans et trésorier de l'Euskaltzaleen Biltzarra. Esthète, dessinateur, écrivain dans « Gure Herria », « Gernika » « Eusko jakinza », « Agur » où il raconte les faits qui ont marqué l'histoire de Saint-Pée, il fit preuve d'une grande ouverture d'esprit en épousant Angèle Laffitte, d'une famille anticléricale.

Son frère Christophe, mort prématurément à cause d'une maladie contractée dans les tranchées,

était un personnage exceptionnel. Comme son frère, artiste et musicien de surcroît, il se comporta héroïquement à la guerre où l'ordre du Mérite le récompensa de son courage de médecin sous les tirs d'obus, faisant passer la vie des blessés avant sa propre sécurité. Il contribua à l'utilisation du masque anesthésiant d'Ombredane et se consacra également à la chirurgie faciale des « gueules cassées ».

Alexandrine, « Alex » pour ses frères qui la chérissaient (on peut lire les lettres émouvantes et affectueuses des deux frères, au front adressées à leur mère et leur sœur), fit don d'un terrain, issu de l'héritage familial, à la paroisse dans le but d'y édifier un établissement scolaire agricole. La seule condition était que le collège porte le nom de son frère Christophe disparu. Agrandi depuis, il porte le nom de lycée Saint-Christophe.

• Claude Carlier



1984. Senpere airetik. (Bulletin municipal)